



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 23a

106. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Sustapen Ministerioa prestatzen ari den RENFERen tren zerbitzuen aldaketei –Nafarroan eragina izan dezaketen heinean– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, hedabideek 2003tik hasita orain arte jaso dituzten diru-laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak Queiles ibaiaren inguruan onetsitako erabakia betetze aldera egin diren urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Foruzaingoak Foru Komunitateko kale eta errepedeetan eginiko kontrolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aplikatuz Euskaltzaindiari emandako laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren araudia Kontuen Ganberaren txostenean jasotako gomendioen arabera aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren gaineko dokumentazioa ukatzea babesten duten txosten juridikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko eta Sodenako ordezkariak Xiamengo CIFIT Azokan parte hartzeko Txinara eginiko bidaiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak onetsi eta kapital transferentzien bidez betetako aurrekontuari eta toki entitateei eginiko transferentzia arrunten osotasunari eta 2008tik honako zerga bilketaren bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak 2013ko maiatzaren 8an eginiko agerraldian aipatu zuen txostenaren gainekoa, zeina baita Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzari eginiko ikuskapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko zerbitzu juridikoei Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzari eginiko ikuskapenari buruz eginiko txostenen gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutzaren arte-ondarea Nafarroako herritarren zerbitzura egon dadila ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

- Galdera, abiadura handiko trenaren Castejón-Iruña zatiaren eraikuntzak Tafallako eta Nafarroako erdialdeko garapen ekonomiko eta sozialean duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zerbitzuburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, jakitekoa zer neurri hartu dituen edo hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak betetzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, Gizarteratze Errentari buruzko Foru Lege berria indarrean sartu aurretik eskatutako gizarteratze errentak ukatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, Ultzama, Malerreka, Baztan, Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Bortzirietako oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateek Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013rako ezartzen dituen Foru Aginduaren aurka aurkeztutako errekursoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, Mendiei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1192 Foru Dekretuko 89 eta 90. artikulua betetzeko hartutako neurriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, BEZa dela-eta, 2013ko apirilean lortuta zegoen diru-bilketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, udako igerileku berriak finantzatzeko, Tafallako Udalari diru-laguntza bat emateko hartu beharreko erabakiaren zirriborroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Galdera, Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Sustapen Ministerioa prestatzen ari den RENFERen tren zerbitzuen aldaketei –Nafarroan eragina izan dezaketen heinean– buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, Sustapen Ministerioa prestatzen ari den RENFERen tren zerbitzuen aldaketei –Nafarroan eragina izan dezaketen heinean– buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak informazioa eskatu du Espainiako Gobernuak Sustapen Ministerioa balizko aldaketak prestatzen ari izateari buruz RENFERen tren zerbitzu batzuen plangintzari dagokionez (PES-70/13). Informazio hauxe eman dio Sustapeneko kontseilariak:

Joan den maiatzaren 16an, nazio mailako egunkari batek albiste bat argitaratu zuen Renfeko 48 linea kentzeko aukerari buruz, gutxi erabiltzen direlako eta errentagarritasun txikia dutelako.

Linea horien artean, Nafarroa zeharkatzen duten zenbait linea agertzen ziren. Albisteak eragindako alarma dela eta, egun hartan bertan, kontseilariaren kabineteak ministerioko iturriekin hitz egin zuen. Iturri horiek informazioa ezeztatu eta berretsi zuten Iruña eta Castejón arteko zerbitzuei etsiko zitzaie, egungoen antzeko moduan.

Joan den astean, departamentu honetako kideen, Sustapen Ministerioko ordezkarien eta Renfeko ordezkarien arteko topaketa bat izan zen Madrilen, gai horri buruz hitz egiteko. Bilera horretan, Sustapen Departamentuari jakinarazi zitzaion aldaketak, nagusiki, ordutegietan eginen direla, distantzia luzeko eta ertaineko zerbitzuetako denborak elkarren hurbilegi gerta ez daitezen. Halaber, jakinarazi zitzaion hemendik gutxira Nafarroako Gobernuari horri buruzko informazio zehatzagoa emanen zaiola.

Hori guztia dela eta, Sustapen Departamentua azkenean egituratuko diren zerbitzu eta ordutegiei buruzko xehetasunak jasotzeko zain dago. Dirudinez datorren ekainaren 23tik aurrera aplikatuko dira. Egun horretara arte, datuetan doikuntzaren bat egin ahalko da, azpiegiturak ustiatzeko aukerei erantzuteko.

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, hedabideek 2003tik hasita orain arte jaso dituzten diru-laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, hedabideek 2003tik hasita orain arte jaso dituzten diru-laguntzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du era guztietako hedabideek 2003tik jasotako diru-laguntzen zenbatekoari buruz (PES-00065). Hauxe erantzun du Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Ondoren, diru-laguntzak eta laguntzak aipatuko ditugu, bai eta Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionala ere, 2003tik hasi eta 2012ra bitartekoak. Epigrafe bakoitzean, halako diru-laguntzak eta publizitatea jasotzen dituzten hedabideak aipatzen dira.

Foru erkidegoko hedabideentzako laguntzei dagokienez, Nafarroako Gobernuak, 2003tik 2012ra, bi laguntza mota eman izan dizkie foru erkidegoko hedabideei:

A. Ikus-entzunezkoak sustatzeko laguntzak, soilik TDTko lizentzia (autonomikoa nahiz tokikoa) duten telebistei zuzenduak. 2006tik Nafarroako aurrekontuetan jasotako gastu-kontusail bat da; horrenbestez, ezaguna da. Horietatik, 2006an, 2007an, 2008an, 2009an eta 2012an, laguntzak lehia-araubidean eman dira; 2010ean eta 2011n, ordea, kontusail izendunak izan ziren, orduan emititzen zuten Nafarroako hiru telebistentzakoak. Honakoak izan ziren laguntzak ordaintzeko ebazpenak, emandako diru-laguntzaren esparrukoak, behin telebistek gastuak justifikatu ondoren:

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
CANAL 4	513.575,8 €	1.009.678,4 €	994.336,3 €	833.319,1 €	817.868,4 €	800.000 €	-
CANAL 6	502.915,2 €	1.004.166,1 €	1.000.030,5 €	1.193.975,1 €	1.000.000 €	800.000 €	-
POPULAR TV	483.509,0 €	982.212,7 €	995.717,3 €	892.335,5 €	1.000.000 €	800.000 €	-
NAVARRA TV	-	-	-	-	-	-	1.900.000 €
GUZTIRA	1.500.000 €	2.996.056,8 €	2.999.084,1 €	2.919.629,7 €	2.817.868,4 €	2.400.000 €	1.900.000 €

B. Euskara sustatzeko laguntzak. Euskarabidea-Nafarroako Euskararen Institutuaren bitartez eta Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren laguntza teknikoarekin, laguntza publiko batzuk eman dira hizkuntza hori Nafarroako hedabideetan sustatzeko (euskaraz lan egiten dutenetan nahiz gaztelaniaz lan egin baina euskarazko eduki batzuk ematen dituztenetan). Laguntzen xehetasunak erantsitako artxiboan aurki daitezke.

C. Publizitate instituzionalari dagokienez, zehaztu beharra dago, lehenengo, Nafarroako Gobernuak publizitate instituzionalaren arloan egiten duen inbertsioa Gardentasunari eta Gobernu

Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legeak ukitutako gai bat dela, eta lege-agindua tarteko Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu Irekiaren atalean kontsulta daitekeela.

Hala eta guztiz ere, gardentasunaren aldeko ahalegin hori egin izan dugu legez agindutakoaz gorako xehetasunekin, 2008az geroztik. Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak / Gobernuak Eledunaren Bulegoak, bere urteko oroitidazkian, publizitate-kontratazioari buruzko datu guztiak argitaratzen ditu. Zure eskariaren xede den informazioa, beraz, Nafarroako Gobernuak interneten duen atariko helbide honetan aurki daitezke:

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/El+Gobierno/P+ortavoz+del+Gobierno/Memorias/ (ikus Sustapenaren Atala).

Aurreko ekitaldiei dagokienez (2003tik 2007ra), erantzun honi webgunean argitaratutakoaren berdin-berdina den informazioa erantsi diogu.

Laburbildurik, honakoak dira Nafarroako Gobernuaren publizitate-inbertsioaren zenbatekoak (BEZa barne):

- 2003. urtea: 2.735.578 euro.
- 2004. urtea: 2.827.623 euro.
- 2005. urtea: 3.619.339 euro.
- 2006. urtea: 5.482.007 euro.
- 2007. urtea: 6.311.532 euro.
- 2008. urtea: 6.876.104 euro.
- 2009. urtea: 5.378.129 euro.
- 2010. urtea: 2.821.106 euro.
- 2011. urtea: 2.350.919 euro.
- 2012. urtea: 1.414.383 euro.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainean.

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

2003. URTEA

Prensa kabineteak, 2003an, 2.735.578,71 euroko inbertsioa kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 33 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (2.044.230,60 eurokoa izan zen hori). Igoera hori nagusiki heldu da kanpaina berriak egitetik. Horien artean, nabarmentzekoa da telebistaren arloan eginiko 300.000 euroko inbertsioa, Nafarroan Turismoa sustatzekoa.

Inbertsioaren guztizkotik, 726.394,77 euro (% 26,55) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie.

Gainerakoa, 2.009.183 euro, publizitate berezi-rako edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo disei-

nuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntaletik hasi eta egunkarietan, aldizkarietan, irradian eta telebistan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa bi agentziari adjudikatu zaizkie (Blok SA eta Tecna SL), kasuko lehiaketan bitartez. Horrek aukera ematen du hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beharpen batzuk lortzeko. Horri esker, Nafarroako Gobernuak iragan den urtean 200.000 euro inguru aurreztu ditu.

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, dozena bat publizitate kanpaina sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 6.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpainaren gastu orokorra 1.129.906 eurokoa izan zen. Horrek sormenezko publizitatearen % 56 egin zuen, eta aurreko urtearen aldean igoera handi samarra dakar (% 66koa).

Bolumen ekonomikoari erreparatuta, honakoak nabarmendu behar ditugu: Errentaren eta Ondarearen gaineko Aitorpenari buruzko kanpaina (360.000 euro), TVEn Turismo spotak ematea (300.000 euro), 848 telefono aurrezenbaki berriari buruzko kanpaina (150.000 euro),

tabako-kontsumoaren aurkako kanpaina (119.000 euro), eta hauteskunde autonomikoetako boto-kanpaina instituzionala (120.120 euro).

Gainerako ekimenek aurrekontu nabarmen txikiagoa dute. Gehienek helburua da urtero errepikatzen diren jarduketak edo programak ezagutzera ematea. Honakoetan gertatzen da hori: Nafarroako Jaialdiak (75.110 euro); Tokiko informaziorako telefonoa, 012 (63.000 euro), Lanbide heziketaren sustapena (54.460 euro), irakaskuntza publikoko aurre-matrikulazioa (44.319 euro), "Zubiarte" euskara irakasteko zentroko matrikulazioa (9.762 euro), Hirugarren adinerako bainuetxeen programa (8.520 euro) eta Cultur programa (8.218 euro).

Aurrekoei gehitu behar zaizkio 2003an berriak diren bi kanpaina, aurrekontu ertaina daukatenak: Nafarroako Eguneko ekitaldiei buruzko kanpaina (58.000 euro) eta Gabonetako jostailuak erosteko aholku-kanpaina (27.000 euro).

Kanpaina horiek adjudikatzeko modalitateari dagokionez, horietatik gehienak urte hartako adjudikazioa hartutako publizitate-agentziari (Tecna) enkargatu zitzaizkion. Munta ekonomiko handienekoak (errentaren aitorpenari, tabakoari eta hauteskunderi buruzkoak), berriz, lehiaketa publiko bidez adjudikatu ziren. Soilik 848 telefono-aurrezenbakiarena enkargatu zitzaion Tecnari, zeren eta epe-

larritasun batzuk tarteko ezinezkoa izan baitzen lehiaketarako deia egitea.

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. Kapitulu hau aztertu baino lehen, ohartarazi beharra dago ezen publizitate-gastua egozteko orduan lehenengo seihilekoan zegoen organigramari eutsi zaiola, hau da, Nafarroako Gobernu berria hasi ondoren egin ziren aldaketan aurrekoari. Ildo horretan izen den salbuespen bakarria telefono-aurrezenbaki berriari buruzko kanpainarena izan da; izan ere, daukan tamaina dela eta, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan kontabilizatu zen, eta antzinako Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusiari atxiki zitzaion (gaurko Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusia), bera baitzen sustatzailea.

2003ko publizitate-gasturik handiena Ekonomia eta Ogasun Departamentuak egin zuen. 541.189 eurokoa izan zen eta guztizkoaren % 19,7 egin zuen. Inbertsioaren bi heren PFEZaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenari buruzko kanpainarako izan ziren; halaber, toki garrantzitsua hartzen du telefono-aurrezenbaki berriari buruzko kanpinak.

Bigarren tokian, Hezkuntza eta Kultura Departamentua dago, 461.640 euroko gastuarekin (guztizkoaren % 16,88). Normalean, departamentu hori izaten da publizitate-gastuan lehenengo tokian dagoena, zeren eta publizitate kanpaina gehiago sustatzen baitu eta kanpaina horiek urtero izaten baitira.

Gastu-bolumenean, ondoren Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua dator, 357.978 euroko inbertsioarekin (guztizkoaren % 13,09). Kasu honetan, ia gastu guztia (% 85,9) desjabetze-prozedurei buruzko iragarki ofizialetan egin zen.

Antzeko mailak aurkitzen dira Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan eta Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan, 334.913 euroekin (% 12,35) eta 337.921 euroekin (% 12,24), hurrenez hurren. Lehenengoa nabarmentzekoa da hauteskunde autonomikoetan botoa emateko kanpaina instituzionalari dagokio, eta bigarrena, berriz, telebistarako turismo kanpainari.

Jada gastu-maila apalxeagoetan, honakoak datoz: Osasun Departamentua (215.802 euro eta % 7,89) eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

(160.125 euro eta % 8,93), Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua (154.957 euro eta % 5,66) eta Toki Administrazioiko Departamen-

tua (126.224 euro eta % 4,61). Azken tokian, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua dago, inbertsio-maila txikienarekin, 44.825 euro, % 1,54 egiten dutenak.

ZABALKUNDE BIDEAK. Nafarroako gobernua-ren publizitate-jarduera gehiena honakoek osatzen dute: iragarki puntualak osatzen dutena da ?haien zabalkunderako bitartekorik errentagarriena eta eraginkorrena prentsa da? eta izaera ofiziala duten iragarkiak, zeinak, legearen arabera, prentsa bidez zabaldu behar baitira.

Horren arabera, egunkarietako iragarkiek publizitate-inbertsioaren erdia baino gehiago hartzen dute (% 59), eta joan den urtean 1.639.859 euroko kopurura iritsi ziren (1.578.206 euro tokiko prentsan eta 61.653 euro prentsa nazionalen). Tokiko prentsan egindako gastuak, 2002koaren aldean % 14 gora egin badu ere, % 3 egin zuen behera hedabideen guztizkoan, telebistarako turismo kanpainaren eraginez.

Tokiko prentsari dagokionez, 1.055.470 euro Diario de Navarran inbertitu ziren eta 522.736 euro, berriz, Diario de Noticiasen. Azken horrek, beraz, inbertsioaren % 49 hartu zuen, 2002an erregistratutakoa (% 53) baino gutxiago, nahiz eta urrun dagoen daukan hedapenaren arabera dagokion % 33tik.

Egoera hori azaltzeko orduan, iragarki ofizialen eragina aipatu beharra dago. Izan ere, iragarki horiek, legez, bi hedabideetan argitaratzen dira, eta haien kopuruak Diario de Noticiasen fakturazio osoaren % 30 egiten dute. Halaber, esan beharra dago iragarki ugari egun bakar batez argitaratzen direla, baina haien interes informatiboa dela-eta (beketarako, oposizioetarako, ikastaroetarako eta abarretarako epeak) gomendatzekoa da bi egunkarietan argitaratzea.

Bestalde, ikus-entzunezko hedabideetan eta beste euskarri batzuetan gutxiago inbertitzen da, eta prentsarekin batera erabiltzeko gordetzen da, publizitate kanpainen esparruan. Hala eta guztiz ere, 2003a salbuespen bat izan zen, telebistari dagokionez, bereziki, jada aipatu dugun turismo kanpaina dela eta.

Zehazki 397.667 euro erabili ziren telebista spotak egiteko (gastu guztiaren % 14; aurreko urtean % 4 baizik ez zen izan) eta 120.749 euro, berriz, irrati-iragarkiak egiteko (guztizkoaren % 4,4; 2002an, berriz, % 3,1 izan zen). Azkenean, 262.631 euro (guztizkoaren % 9,6; 2002an, berriz, % 9,4 izan zen) erabili ziren beste euskarri batzuetan: afixak, markesinak, liburuxkak, hesiak, telefono-kabinak eta abar. Gainerako zenbatekoa, gastu

guztia osatzerainokoa, produkzioarako erabili zen (437.320 euro).

2002ko banaketari dagokionez, esan beharra dago gora egin zuela telebistan (% 10), prentsan (% 3) eta irrastian (% 1,3) egindako inbertsioak, eta bestelako euskarrietako inbertsioari eutsi egin zitzaiola (+0,2).

2004. URTEA

Hedabideen Zerbitzuak, 2004an, 2.827.623 euroko inbertsioa (BEZa barne) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 5 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (2.735.578,71 eurokoa izan zen hori).

Inbertsioaren guztizkotik, 632.659 euro (% 22,3) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie.

Gainerakoa, 2.194.964 euro, publizitate berezi-rako edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntualetik hasi eta egunkarrietan, aldizkarietan, irrastian eta telebistan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa bi agentziari adjudikatu zaizkie (Gap's Madrid-Gap's Pamplona aldi baterako enpresen batasuna eta CDC Comunicación), kasuko lehiaketen bitartez. Horrek aukera ematen du hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beharpen batzuk lortzeko. Horri esker, Nafarroako Gobernuak, 511.000 euro inguru aurreztu zituen.

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, hogeitabi publizitate kanpaina sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 12.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpaina horien guztizko gastua 1.324.177 eurokoa izan zen; hau da, sormenezko publizitate-kanpainaren kopuruaren erdia baino gehiago (% 60). Zenbateko horrek % 4 egin zuen gora aurreko urtekoaren aldean.

Bolumen ekonomikoari erreparatuta, honakoak nabarmendu behar ditugu: errentaren eta ondarearen aitorpenari buruzko kanpaina eta Nafarroako Gobernuaren internet ataria sustatzeko kanpaina, biak ere 180.000 euroko aurrekontuarekin. Hala ere, antzeko kopuru bat (179.000 euro) erabili zen Nafarroako irudia Nafarroan bertan eta foru erkide-

gotik kanpo sustatzeko iragarkietan. Ondoren, distantzia laburrean, nerabeengan tabako kontsumoari aurre egiteko kanpainarako inbertsioa dator (168.000 euro).

Nabarmentzeko moduko zenbatekoa duten beste ekimen batzuen helburua da urtero errepikatzen diren jarduketak edo programak ezagutzera ematea, gehien bat. Honakoen kasua da: Nafarroako Jaialdiak (107.575 euro); Nafarroako Eguna (86.000 euro), Lanbide heziketaren sustapena (73.320 euro), Tokiko informazio-telefonoa, 012 (60.000 euro) eta irakaskuntza publikoko aurre-matrikulazioa (48.100 euro).

Gainera, 2004an zehar, osasunaren eta kontsumoaren arloko interes praktikoko aholku batzuk zabaltzeko kanpainak egin ziren (52.000 euro), bide-segurtasunari buruzkoa (49.000), basoetako suteei aurrea hartzekoa (35.692 euro), familia harrerarako programa sustatzekoa (33.000 euro), Donejakue Bideari buruzko informazio-telefonoari buruzkoa (24.490 euro), minbiziari aurrea hartzekoa (19.000 euro), Merkataritzaren Asteari buruzkoa (16.000 euro) eta Gabonetako kontsumo arduratsuari buruzkoa (13.000 euro).

Kanpaina horiek adjudikatzeko modalitateari dagokionez, guztiak, errentari buruzkoa izan ezik, berriazko lehiaketa baten bidez egin baitzen, urte hartako adjudikazio-hartzailea zen publizitate-agentziari enkargatu zitzaizkion (Gap's Madrid-Gap's Pamplona enpresen aldi baterako batasuna).

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. 2004ko publizitate-gasturik handiena Toki Administrazio Departamentuak egin zuen, 786.949 euroko inbertsioarekin. Horren arrazoia izan zen departamentu horri Komunikazio Zuzendaritza Nagusia atxiki zitzaiola. Izan ere, zuzendaritza nagusi hori da Nafarroako Gobernuaren publizitate kudeatzeko eta koordinatzeko ardura duena, eta, horrenbestez, ekimen garrantzitsuenetako batzuen sustatzailea; esate baterako, interneteko atariari buruzko kanpaina, bide segurtasuneko edo Nafarroako irudiari buruzkoa.

Bigarren tokian, Kultura eta Turismo Departamentua dago, 361.736 euroekin. Hain zuzen ere, kulturaren ardura duen departamentua gastu-bolumenean lehenengoetako bat izaten da, urteko programetako jarduerak jakitera emateko egiten duen inbertsioa dela eta: Jaialdiak, Udazkeneko Bira eta Udaberriko Bira, musika zikloak, zinema, erakusketak, lehiaketak eta abar.

Halako distantzia batera datoz Osasun Departamentua (291.736,92 euro), Ekonomia eta Ogasun Departamentua (284.009 euro) eta Hezkuntza

Departamentua (245.291 euro). Gastuaren zati handi bat horietako bakoitzak abiarazitako kanpainan garrantzitsuei dagokie; esate baterako, tabakismoari aurrea hartzeko kanpainan, PFEZaren aitopenerari buruzkoa edo haur hezkuntzako eta lanbide heziketako matrikulazioa sustatzeko kanpainan.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren kasuan, berriz, guztizko inbertsioaren % 89 (165.879 euro) ohar-iragarkiei dagokie.

Hurrengo izan zen gainerako publizitate-gastuaren departamentuen araberrako banaketa: Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lana (182.954 euro), Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria (130.969 euro), Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza

(59.003 euro), Lehendakaritza, Justizia eta Barnea (52.189 euro) eta Nekazaritza (43.746 euro).

ZABALKUNDE BIDEAK. Nafarroako gobernua- ren publizitate-jarduera gehiena honakoek osatzen dute: iragarki puntualak osatzen dutena da ?haien zabalkunderako bitartekorik errentagarriena eta eraginkorra prentsa da? eta izaera ofiziala duten iragarkiak, zeinak, legearen arabera, prentsa bidez zabaldu behar baitira.

Horren arabera, egunkarietako iragarkiek publizitate-inbertsioaren erdia hartzen dute (% 52), eta joan den urtean 1.482.388 euroko kopurura iritsi ziren (1.315.328 euro tokiko prentsan eta 167.059 euro prentsa nazionalan). Tokiko prentsara bideratutako gastuak % 17 egin zuen behera 2003ko inbertsioaren aldean; nazioko prentsara bideratutakoa, berriz, bikoiztu egin zen, turismo-iragarkiak tarteko.

Tokiko prentsari dagokionez, 835.367 euro Diario de Navarran inbertitu ziren, 373.032 euro Diario de Noticiasen, eta 106.924 euro La Estafetan. Horrela, Diario de Navarrak inbertsioaren % 63,5 hartu zuen, foru erkidegoko egunkari-irakurleen guztizkoaren % 68ko zabalkundearekin (CIESeK 2004ari buruz emandako datuak). Diario de Noticiasek inbertsioaren % 28,3 hartzen du zabalkundearen % 26,8rekin eta La Estafetak inbertsioaren % 8 hartzen du % 2ko zabalkundearekin.

Halaber, aldizkariak, bai Nafarroako tokiko aldizkariak, bai nazio mailako aldizkari espezializatuek, toki garrantzitsua hartzen dute; haietan, joan den urtean, 221.851 euroko inbertsioa egin zen.

Bestalde, ikus-entzunezko hedabideetan eta beste euskarri batzuetan gutxiago inbertitzen da, eta prentsarekin batera erabiltzeko gordetzen da, publizitate kanpainan esparruan.

Zehazki, 400.951 euro erabili ziren telebista spotak egiteko. Aurreko urtekoaren antzeko kopurua da, eta honela banatu zen: 139.580 euro Canal 6en, 99.974 euro TVEn, 71.037 euro en Canal 4n, 67.157 euro Antena 3en eta 23.200 euro Gaztela Leongo Canal 4n.

Irrati-iragarkien inbertsioa 108.189 eurokoa izan zen, 2003koa baino % 11 txikiagoa, beraz. Hona banaketa: 30.704 euro Cadena Copen, 29.409 euro Onda Ceron eta 26.416 euro Cadena Seren. Halako distantzia batera, beste irrati batzuk datoz: Kiss FM (7.481 euro), Cadena 100 (6.180 euro) eta 40 Principales (3.627 euro).

Kanpoko euskarrietako (markesinak eta hesiak) publizitateak 198.820 euroko gastua ekarri zuen. Kartel, liburuxka eta abarrekoen produktio- ra, berriz, 247.128 euro bideratu ziren.

2005. URTEA

Hedabideen Zerbitzuak, 2005ean, 3.619.339,90 euroko inbertsioa (BEZa barne) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 27,9 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erre- gistratutakoa baino (2.827.623 eurokoa izan zen hori). Igoera hain handi horren arrazoia da, batez ere, nazioko prentsan eta aldizkarietan egindako turismo kanpainan (516.595 euro) eta Osasunak Errege Koparen finala jokatzearen harira egindako publizitate ekintzak (135.818), bai eta kirol klub- en babesle-jarduera ere (163.800 euro).

Inbertsioaren guztizkotik, 476.210,91 euro (% 13,1) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontra- tazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako dei- aldien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie. 2005ean kontratatutako kopuru- ak % 24,8 egin du behera 2004koaren aldean. Horren arrazoia izan daiteke La Estafeta desager- tu izana eta desjabetzei buruzko iragarkirik ez ateratzea, informazio publikoko faseari buruz, Dia- rio de Noticiasen.

Gainerakoa, 3.143.129 euro, publizitate berezi- rako edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo disei- nuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntualetik hasi eta egunkarietan, aldizkarietan, irratan eta telebistan eta bestelako publizitate-euskarri batzuetan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publi- zitatearen kudeaketa lehiaketa bidez adjudikatu izateak (2005ean, Gap's Pamplona Comunicación enpresak irabazi zituen bi lehiaketak) aukera

eman zuen hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beherapen batzuk lortzeko. Horri esker, Nafarroako Gobernuak, 400.000 euro baino gehiago aurreztu zituen.

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, hamar publizitate kanpaina sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 12.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpaina horien guztizko gastua 1.760.984 eurokoa izan zen; hau da, sormenezko publizitate-kanpainaren kopuruaren erdia baino gehiago (% 56). Zenbateko ekonomikoak 2004koaren aldean gora egin zuen arren (% 32), kanpainek publizitate-inbertsioaren guztizkoan izan zuten garrantziak lau puntutan egin zuen behera 2004koaren aldean, ekimen gutxiago izan baitziren.

Bolumen ekonomikoari erreparatuta, honakoak nabarmendu behar ditugu: turismo kanpaina naziko prentsan eta aldizkarietan (516.595); Nafarroako Ubideari buruzko kanpaina, 213.637,56 euroko aurrekontuarekin; errentaren eta ondarearen aitopenerari buruzko kanpaina (203.266), eta Osasunak Errege Kopako finala jokatzearen kariatara eginiko publizitate-ekintzak.

Nabarmenezko moduko zenbatekoa duten beste ekimen batzuen helburua da urtero errepikatzen diren jarduketak edo programak ezagutzera ematea, gehien bat. Honakoak kasuak da: Nafarroako Eguna (74.000 euro); Lanbide heziketaren sustapena (78.000 euro), Tokiko informazioarako telefonoa, 012 (72.616 euro), Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdia (42.371 euro) eta irakaskuntza publikoko aurre-matrikulazioa (13.806 euro).

Gainera, 2005ean zehar, bestelako kanpainak egin ziren: telebistan bide-segurtasunari eta bestelako aholku praktikoei buruzko mikrosailak (69.600 euro); Sanferminetan turismo spotak egitea (65.000 euro); irratiko mikrosailak osasunari eta kontsumoari buruzko interes praktikoko gaietarako buruz (53.500 euro), Nafarroako irudia New Yorken sustatzea (45.000 euro), eskola-jazarpenari aurrea hartzea (40.663 euro); basoetako suteei aurrea hartzea (24.500 euro), Zubiarte euskaltegia (13.881 euro) eta Gabonetako kontsumo arduratsua (12.000 euro).

Kanpaina horiek kontratatzeko modalitateari dagokionez, guztiak ere urte hartan publizitatearen adjudikazioa hartutako agentziari enkargatu zitzaizkion.

Halaber, berariaz aipatzekoa da Nafarroako irudia kirol klubak babestearen bitartez sustatzera bideratutako zenbatekoa. Kontzeptu hori dela eta, 163.800 euro ordaindu zitzaizkien honako klub

hauei: Xota (69.000); Peralta (36.000) eta Osasuna: UEFAn parte hartu zuen bitartean (24.000 euro) eta Nafarroako Erresuma estadioaren hesietan (34.800).

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. 2005eko publizitate-gasturik handiena Toki Administrazioiko Departamentuak egin zuen, 1.456.860,7 euroko inbertsioarekin. Horren arrazoia izan zen departamentu horri Komunikazio Zuzendaritza Nagusia atxiki zitzaioela. Izan ere, zuzendaritza nagusi hori da Nafarroako Gobernuaren publizitatea kudeatzeko eta koordinatzeko ardura duena, eta, horrenbestez, ekimen garrantzitsuenetako batzuen sustatzailea; esate baterako, Nafarroako Ubidekoa, interes orokorreko aholkuei buruzko mikrosailetakoa, edo Nafarroako irudia kirol taldeen bitartez sustatzekoa. Gainera, Zuzendaritza Nagusiak laguntza ekonomikoa eman du beste departamentu batzuek sustatutako kanpainetarako; esate baterako, errentaren kanpainarako eta turismo kanpainetarako.

Bigarren tokian, Kultura eta Turismo Departamentua dago, 909.805,32 euroekin. Horietatik, adierazi bezala, erdia baino gehiago turismoa nazio mailan sustatzeko erabili ziren; helburu horrek, izan ere, joan den urtean, aurreko ekitaldietan baino inbertsio handiagoa ekarri zuen. Gainera, departamentu hau lehenengoetako bat izaten da gastu-bolumenean, bere urteko programetako jarduerak ezagutzera emateko egiten dituen iragarkiengatik: Jaialdiak, Udazkeneko Bira eta Uda-berriko Bira, musika zikloak, zinema, erakusketak, lehiaketak eta abar.

Esateko moduko distantzia batera, Hezkuntza Departamentua (251.810,47 euro) eta Ekonomia eta Ogasuna Departamentua (239.181,53 euro) datoz, egin dituzten kanpainengatik (eskola-jazarpena, eskola publikoko matrikulazioa eta lanbide heziketa, PFEZa eta abar). Ondotik, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua (174.586,44 euro) dator, non inbertsio gehiena desjabetzei buruzko iragarkietan egin baita.

Hurrengo izan zen gainerako publizitate-gastuaren departamentuen araberrako banaketa: Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lana (148.932 euro), Osasuna (145.741,91); Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria (144.283,41 euro), Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza (66.408,77 euro), Nekazaritza (42.063,79) eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnea (39.664,84).

ZABALKUNDE BIDEAK. Nafarroako gobernua- ren publizitate-jarduera gehiena honakoek osatzen dute: iragarki puntualak osatzen dutena da ?haien

zabalkunderako bitartekorik errentagarriena eta eraginkorrena prentsa da? eta izaera ofiziala duten iragarkiak, zeinak, legearen arabera, prentsa bidez zabaldu behar baitira.

Horren arabera, egunkarietako iragarkiek publizitate-inbertsioaren ia erdia hartzen dute (% 44,2), eta joan den urtean 1.381.073 eurora iritsi zen, BEZa kenduta

(1.070.337 euro tokiko prentsan eta 310.736 euro prentsa nazionalean). Prentsara bideratutako gastuak % 21,7 egin zuen gora. Igoera horren arrazoia izan zen turismo-iragarki ia guztiak prentsa nazionalean argitaratu zirela. Aitzitik, tokiko prentsako inbertsioak % 6,2 egin zuen behera. Horri dagokionez, gogorarazi behar da lehenengo sei hilekoan La Estafeta egunkaria itxi zela.

Hedabideei erreparatuta, Diario de Navarra egindako inbertsioa 733.284,17 eurokoa izan zen (% 1,8 gehiago 2004an baino); Diario de Noticiasen 285.822 eurora iritsi zen (% 11,2 gutxiago 2004an baino) eta 36.207 euro La Estafetan.

Azkenik, Vivir Pamplonak 15.023 euroko inbertsioa hartu zuen (2004an baino % 133 gehiago).

Datu horien arabera, Diario de Navarra inbertsioaren % 68,5 hartu zuen, foru erkidegoko egunkari-irakurleen gutzitzkoaren % 72ko hedapenarekin (CIESen datuak dira, 2005ekoak, Vivir Pamplona kontatu gabe) eta Diario de Noticiasen, berriz, inbertsioaren % 26,7 hartu zuen, irakurleen % 26,8 edukita.

Aldizkariak, bai Nafarroako tokiko aldizkariak, bai estaldura nazionala dutenak, inbertsioa bikoiztu zuen 534.336 eurora iristeraino, aipatutako turismo-kanpaina dela eta. Bestalde, ikus-entzunezko hedabideetan eta beste euskarri batzuetan gutxiago inbertitzen da, eta prentsarekin batera erabiltzeko gordetzen da, publizitate kanpainen esparruan.

Zehazki, 386.793 euro erabili ziren telebista spotak egiteko (2004an baino % 11,5 gehiago). Honela banatu ziren: 123.766 euro Canal 6en (gutzitzkoaren % 31,9. 2004an baino 2 gehiago), 120.589 TVEn (% 31,1. + % 39), 67.253 euro Canal

4n (% 17,3. + % 9), 63.444 euro Antena 3en (% 16,4. + % 9) eta 11.740 euro Popular TVn (% 3).

Irrati-iragarkien inbertsioa 86.395 eurokoa izan zen, 2004koa baino % 7,4 txikiagoa, beraz. Hona inbertsioaren banaketa: 28.327 euro Cadena Copen (gutzitzkoaren % 32,7. 2004an baino % 7 gehiago), 25.813 Cadena Seren (gutzitzkoaren % 29,8. +% 13) eta 23.602 Onda Ceron (gutzitzkoaren % 27,3. - 7%). Distantzia handi batera datoz

beste irrati batzuk: Kiss FM (2.591 euro. – % 66), Cadena 100 (2.254 euro. – % 64) eta 40 Principales

(1.769 euro.- % 52) eta Net 21 (1.575 euro. + 36%). Jaitsiera nagusiki gertatu da formula-irradi musikaletan, eta horren arrazoia da 2005ean ez zela gazteei zuzendutako kanpaina berariazkorik egin; 2004an, aldiz, bai egin zen (tabakoaren kontsumoari aurrea hartzekoa).

Kanpoko euskarrietako (markesinak eta hesiak) publizitateak 87.144 euroko gastua ekarri zuen. Liburuxken produkzioa, berriz, 75.249 euro bideratu ziren,

kartelen produkzioa 32.170 euro, eta merchandising gaietara (boligrafoak, orrialde-markatzaileak eta abar), azkenik, 59.597 euro). Halaber, 67.120 euro inbertitu ziren kanpainak sustatzeko zenbait ekintzatan (azafatak, aurkezpenak, zizka-mizkak eta abar), 22.594 euro zinema-aretoetan spotak emititzeko eta 7.845 euro Nafarroako herrietan barna dabilen afixa mugikorrerako.

Bestalde, prentsa-iragarkien, irrati-iragarkien, telebista eta zinema spoten eta aldizkarietako iragarkien sormeneko lanak eta produkzioak 214.185 euroko gastua ekarri zuen (karteletako, liburuxketako eta markesinetako sormen-lana inbertsioaren gutzitzkoan dago).

2006. URTEA

Hedabideen Zerbitzuak, 2006an, 5.482.007,2 euroko inbertsioa (BEZa barne) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 51,4 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (3.619.339,9 eurokoa izan zen hori). Igoera hain handi horren arrazoia dira, funtsean, turismo kanpainak, bai Nafarroa sustatzeko kanpaina orokorra, bai 2006an antolatutako kultur ekitaldien berariazko kanpaina edo Xabierko San Frantziskoren V. urteurreneko ekitaldietakoa ere.

Inbertsioaren gutzitzkotik, 614.019,77 euro (% 12) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie. 2006an kontratatutako kopuruak % 29ko igoera suposatzen du 2005ekoaren aldean. Horren zati handi bat desjabetze-jarduerak egora egin izateari zor zaio. Hala eta guztiz ere, publizitate mota horrek garrantzia galtzen du inbertsioaren gutzitzkoan (bi puntu).

Gainerakoa, 4.867.987,40 euro, publizitate bereziko edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi

edo diseinuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntaletik hasi eta egunkarietan, aldizkarietan, irradian eta telebistan eta beselako publizitate-euskarri batzuetan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa lehiaketa bidez adjudikatu izateak (2005ean, lehenengoa Tecna SLk irabazi zuen eta bigarrena Gap's Pamplona Comunicación enpresak) aukera eman zuen hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beharpen batzuk lortzeko. Horri esker, Nafarroako Gobernuak, ia 500.000 euro aurreztu zituen.

PUBLIZITATE KANPAINAK.

Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, hamar publizitate kanpaina sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 15.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpaina horien guztizko gastua 3.349.716 eurokoa izan zen; hau da, sormenezko publizitate-kanpainaren kopuruaren ia bi heren (% 61,1). Horri dagokionez, nabarmentzekoa da 2005aren aldean igoera handia izan dela, bai inbertsioari dagokionez, ia bikoiztu baita (+ % 90,2), bai sormenezko publizitatearen guztizkoan duen garrantzi espezifikoari dagokionez ere (+ % 12,8).

Igoera horren arrazoia izan da, zalantzarik gabe, turismoko inbertsioa asko handitu dela. Horrek, izan ere, inbertsio-jarduera gehiago eskatzen ditu. Hartara, turismoa sustatzeko kanpaina orokorra 1.200.000 eurokoa izan zen; Kultura-urteari dagokiona, berriz, 1.032.680,5 eurokoa izan zen. Ondoren, bolumen ekonomikoari erreparatuta, errentari buruzko kanpaina (202.099,72 euro), Xabierko San Frantziskoren V. Urteurrenako kanpaina (171.086 euro) eta gazteengan alkoholaren kontsumoari aurrea hartzeko kanpaina (117.295,7 euro).

Hona beste ekimen batzuk: "Nafarroa: guztion artean etorkizuna eraikiz" izeneko erakusketa

(90.276 euro), Nafarroaren Eguna (79.959 euro), Lanbide Heziketa (79.353), 012 Telefonoa (71.076), Erriberriko Antzerki Jaialdia (56.309), Etxeko tresna elektrikoaren Renove Plana (42.304 euro), suteei aurrea hartzeko kanpaina (29.151), Tuterako katedraleko erakusketa (24.865), TDT telebista eskaintza (22.240) eta eskola publikoko matrikulazio kanpaina (16.224).

Ekimenen multzo horretatik, ia erdia urtero programa, jarduketa edo zerbitzu jakin batzuk ezagutzera emateko egiten diren kanpainei dagozkie: PFEZaren kanpaina, Nafarroaren Eguna, 012 toki-

ko informazioko telefonoa, lanbide heziketaren sustapena, Erriberriko antzerki klasikoko jaialdia edo suteei aurrea hartzeko kanpaina.

Gainera, bestelako publizitate bat ere badago, berez kanpaina izatera iritsi gabe, hedabide mota bakar batean garatzen baita, inbertsio eta zabal-kunde bolumen handia dakarrena, hedabidearekin urte osoan zehar hartu-eman egonkorra edukitzeko beharra ekartzeaz gainera. Bide segurtasunari eta jazarpenari buruzko mikrosailak dira, tokiko telebistetan ematen direnak (Canal 4, Canal 6 eta Popular TV), 85.728 euroko kostuarekin, eta herri-tarrei aholku emateko mikrosailak, Cope, Ser eta Onda Cero irrati-tan programatzen direnak eta 45.700 euroko aurrekontua hartzen dutenak. Atal honetan, aipatzekoa da, era berean, aipatutako hiru telebistetan gorrentzat egiten den publizitatea, zeinak 62.640 euroko inbertsioa ekarri baitzuen, eta TVEko "Museos de Navarra" programan emititzen diren iragarkiak (45.936).

Kanpaina horiek kontratatzeke modalitateari dagokionez, guztiak ere urte hartan publizitatearen adjudikazioa hartutako agentziari enkargatu zitzaizkion.

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. 2006ko publizitate-gastu handiena Kultura eta Turismo Departamentuak egin zuen, 2.514.763,2 euroko inbertsioarekin. Horren arrazoia dira, adierazi dugun bezala, nazio mailan egin diren turismo-sustapeneko kanpainak. Halaber, departamentu hori da kultur jarduera ugari sustatzen dituen, eta jarduera horietarako publizitate-ekintzak egin behar dira: jaialdiak, erakusketak, Udazkeneko Bira eta Udaberriko Bira, musika zikloak, zinema, lehiaketak eta abar.

Ondotik, baina distantzia handira, Toki Administrazioiko Departamentua dator, 1.420.270,20 euroko inbertsioarekin. Departamentu hori, zeinari atxikita baitago Komunikazio Zuzendaritza Nagusia, eta zuzendaritza nagusi hori da Nafarroako Gobernuaren publizitatea kudeatzeko eta koordinatzeko ardura duena, eta, horrenbestez, ekimen garrantzitsuenetako batzuen sustatzailea. 2006an, honako kanpainak finantzatu ziren: Xabierko San Frantziskoren V. urteurrenaren kanpaina, "Nafarroa: guztion artean etorkizuna eraikiz" erakusketarena, Nafarroaren Egunarena, Sanferminetako spotenak edo Nafarroak Larrialdi Agentziarena. Gainera, tokiko telebistetako eta irrati-tako mikrosailari eta lankidetzara iraunkorrei zegozkien gastuak ordaindu ziren.

Halaber, ekarpen ekonomiko batzuk egin dira beste departamentu batzuetako kanpainetarako, haien zabal-kundea areagotze aldera. Horixe da

Kultur Urtearen kanpainaren, PFEZari buruzko kanpainaren, alkoholismoari buruzko kanpainaren eta Tuterako katedralari buruzko erakusketari buruzko kanpainaren kasua.

Elkarren antzeko kopuruekin, nahiz eta inbertsio maila askoz txikiagoa eduki, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua (264.056,27 euro), Osasun Departamentua (264.056,27 euro) Hezkuntza Departamentua (263.053,39), Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentua (245.898,44) eta Ekonomia eta Ogasun Departamentua datoz (242.326,24) Lehenengo departamentuaren kasuan postu horretan egoteko arrazoia dira desjabetze-iragarkiak; gainerakoen kasuan, funtsean, arrazoia da joan den urtean munta handi samarrek kanpainak sustatu zituztela: alkoholismoari aurrea hartzeko kanpaina (Osasuna), lanbide heziketa sustatzekoa, eskolaratzeari buruzkoa, Zubiarte euskaltegia... (Hezkuntza), errentari buruzko kanpaina (Ekonomia) eta etxeko tresna elektrikoaren Renove Planarena (Industria).

Honakoa izan zen beste departamentuetako banaketa: Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria (102.515,11), Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza (76.191,61 euro), Nekazaritza (46.155,49) eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnea (42.464,14 euro).

ZABALKUNDE BIDEAK. Hedabideen arteko banaketari dagokionez, turismo-kanpainen tamaina dela eta, haien hartzaile nagusia telebista izan da. Horrek eragin du prentsak izan ohi zuen garrantzi espezifikoak behera egitea; izan ere, lehenago publizitate-fakturaren ia erdia hartzen zuen prentsak. Ondoren, euskarri desberdinetako inbertsioa zehazten da (BEZik gabeko kopuruak dira).

2006an, egunkarietako iragarkiek 1.690.969,9 euro egin zuten (1.231.524,1 euro tokiko prentsan eta 455.825,51 euro prentsa nazionalean). Gastuak % 22 egin zuen gora bi ataletan, nahiz eta prentsak guztizkoan zuen garrantzi espezifikoak % 44tik % 30,8ra jaitsi zen.

Hedabideei erreparatuta, Diario de Navarra egindako inbertsioa 850.890,30 eurokoa izan zen (2005ean baino % 16 handiagoa), Diario de Noticias egindakoa 345.433,33 eurokoa izan zen (2005ean baino % 20 gehiago) eta ADNn (lehenago Vivir Pamplona) egindakoa, berriz, 34.150,51 eurokoa izan zen (% 227 handiagoa). Lehenengo biei dagokionez, esan behar da Diario de Navarra publizitate arrunt gehiago, desjabetzei buruzko publizitate gehiago eta sormen gutxiko publizitate gehiago hartu duela; Diario de Noticiasek,

berriz, hiru iragarki motatan egin du gora: % 37,2 desjabetzei buruzkoan, % 18 publizitate arruntean eta % 16 sormen gutxikoan).

Datu horien arabera, Diario de Navarra tokiko prentsan egindako inbertsioaren % 69 hartu zuen, foru erkidegoko egunkari-irakurleen guztizkoaren % 62,3ko hedapenarekin (CIESen datuak dira, 2006koak, ADN sartuta) eta Diario de Noticiasek, berriz, inbertsioaren % 28 hartu zuen, irakurleen % 22,8 edukita. Azkenik, ADNk inbertsioaren % 2,7 hartu zuen, irakurleen % 17,5arekin, nahiz eta eragin horietarako gogorarazi behar den ADN doakoa dela.

Prentsa nazionalari erreparatuta, nabarmentzekoa da El País egunkariak, inbertsioko 258.497 euroekin, atal honetako gastuaren % 56,7 hartu zuela, El Viajero gehigarrian jarritako turismo-iragarkiengatik.

Aldizkariak, Nafarroako tokiko aldizkariak nahiz nazio-estaldura dutenek, 456.755,14 euroko inbertsioa hartu zuten, 2005ean baino % 14,5 gutxiago. Jaitsiera horren arrazoia da urte horretan ez zela errepikatu 2005ean turismo-iragarkiek sektoreko aldizkarietan izan zuten presentzia. Hala eta guztiz ere, bai handitu zen Nafarroako tokiko aldizkarietan egindako inbertsioa. Oro har, ehun aldizkari ingurutan jarri ziren iragarkiak.

Ikus-entzunezkoen sektoreari dagokionez, nabarmentzekoa da, jada adierazi dugun bezala, telebistan egindako inbertsioa izugarri handitu dela, bereziki nazio-estaldurakoetan, turismo-kanpainen ondorioz. Zehazki, 1.703.832,1 euro erabili ziren telebista spotak egiteko, eta hori 2005eko inbertsioaren lau halako da (+ % 440). Inbertsio handiena nazioko kateetan egin zen, eta aurreko urtean aldean igoera ikusgarriak izan ziren.

Ondorengo hau da banaketa, zehazki: 697.772,01 euro Antena 3en (gutzizkoaren % 41 eta 2005ean baino hamar aldiz gehiago), 512.374,58 euro TVEn (gutzizkoaren % 30 eta 2005an baino ia lau aldiz gehiago), 144.774,10 euro TV3en (% 8,4, lehenengo aldiz), 113.320,47 euro Canal 6en (% 6,6 eta - % 2,4), 106.330,89 euro Telemadriden (% 6,2, lehenengo aldiz), 59.767,75 euro Canal 4n (gutzizkoaren % 3,5 eta - % 11,2), 52.968,29 Popular TVn (% 3,1 eta + % 45,1), 12.614 euro TV Intereconomían (lehenengo aldiz), eta 4.000 euro Poloniako telebistan (lehenengo aldiz).

Tokiko esparruan, Canal 4k izan duen jaitsiera txikiak eta Canal 6k izan duen jaitsiera handiagoak arrazoi bat izan dute: ohiko kanpainetako batean (lanbide heziketakoan) ez zen spotik izan, azkenean edizioan. Halaber, gora egin zuten agentzia

adjudikazio-hartzaileak eskainitako beherapenek; horrenbestez, pase kopuru berarekin ere faktura txikiagoa izan zen. Popular TV da 2005aren aldean nabarmen igotzen den bakarra, zeren eta urte horretan soilik hilabete batzuetan jarri baitzen publizitatea, emititzek lizentzia lortu zuenetik aurrera.

Bestalde, irrati-iragarkien inbertsioa 108.839,95 eurokoa izan zen, 2005ekoa baino % 25,9 txikiagoa, beraz. Hona inbertsioaren banaketa: 33.298,43 euro Cadena Copen (guztizkoaren % 30. 2005ean baino % 17,5 gehiago), 27.589,99 Cadena Seren (guztizkoaren % 25. +% 6,88) eta 27.502,15 Onda Ceron (guztizkoaren % 25. +16,5%). Distantzia handi batera datoz beste irrati batzuk: Kiss FM, 5.721,66 euroekin (% 5. + % 220), 40 Principales: 5.049,51 euroekin (% 4,6. +% 285), Cadena 100: 4.208,18 euroekin (% 3,8. +% 186), Europa FM: 2.841,60 euroekin (guztizkoaren % 2. Lehenengo aldia da), Punto Radio: 1.660,80 (1%. Primera aparición). Azkenean, eta modu ia testimonialean, tokiko bi irrati daude: Onda Ribera (659,60 euro) eta Xorroxin Irratia (308,03 euro).

Datu horiei erreparatuta, ikusten da musika-irratiek nabarmen egin dutela gora, gazteei zuzendutako kanpaina bat badagoelako: alkoholaren kontsumoari aurrea hartzekoa.

Kanpoko euskarriek (markesinak eta hesiak) 97.100 euroko gastua ekarri zuten (2005ean baino % 11,4 gehiago); beste 46.232 euro sustapen gaietarako erabil ziren (boligrafoak, egutegiak, orrialde-markatzaileak eta abar); 38.719,90 euro liburuxkak egiteko, eta 12.783,61 euro afixak egiteko. Halaber, 71.556 euro (+ % 5) inbertitu ziren kanpainak sustatzeko hainbat ekintzatan (azafatak, aurkezpenak, zizka-mizkak eta abar), 59.114,27 euro zinema-aretoetan spotak emititzeko, 32.643 euro interneteko atarrietan publizitatea egiteko, 31.715 euro zenbait materialetan (txartel handiak, zorionak emateko txartelak, aurkezpenak, DVDak eta abar) eta 28.325 euro pilotalekuetan panelak jartzeko.

Atal honetan, nabarmentzekoa da interneten igoera handia, Periodista Digitalen presentzia jarraituaren ondorioz, bai eta zinemetakoa ere (2005ekoaren bi halako da); igoera txikiagoak izan dituzte markesinetan eta kanpaina ekintzetan egindako gastuek, % 11 eta % 6 hurrenez hurren. Aitzitik, behera egin du merchandisingean egindako inbertsioak, bai eta liburuxka eta afixetan egindakoak ere. Azken horiei dagokienez, esan beharra dago, halere, kopuruak asko aldatzen direla urtetik urtera, zeren eta departamentuek hartzen duten erabakiaren arabera (liburuxkak

Gapsen bitartez egin edo Argitalpen Zerbitzuaren bidez egin). Erabaki hori materiala eskuratzeko presaren arabera izaten da.

Jatorrizko dokumentuak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, diseinatu eta sortzeko kostua 338.537,71 eurokoa izan zen. Bestalde, markesinetako, liburuxketako eta beste euskarri batzuetako sormen-laneko gastua produkzio-kostuaren barrenean dago.

2007. URTEA

Hedabideen Zerbitzuak, 2007an, 6.311.532,2 euroko inbertsioa (BEZa barne) kudeatu zuen, Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionaleko jardueretarako. Inbertsio hori % 15,1 handiagoa izan zen aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino (5.482.007,6 eurokoa izan zen hori). Igoera horren arrazoia, gehien bat, turismoa sustatzeko kanpainan egindako inbertsioaren igoera izan da, bai eta kanpaina berriak egotea ere; esate baterako, 27-Mko hauteskundeetan botoa sustatzeko kanpaina eta Foruaren Hobekuntzaren XXV. urteurreneko ospakizunaren kanpaina. Bi horiek aurreko urtean ez ziren egon.

Inbertsioaren guztizkotik, 663.062 euro (% 10,5) publizitate arruntari edo oharrei zegozkien. Testua baizik ez duten iragarkiak dira, eta kontratazioei, desjabetze-prozedurei, laguntzetarako deialdien epeei, enplegu publikoko hautaprobei eta abarrei dagozkie. 2007an kontratatutako kopuruak % 7,9ko hazkundea du aurreko urtekoarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, publizitate mota horrek garrantzia galtzen jarraitzen du inbertsioaren guztizkoan.

Gainerakoa, 5.648.470 euro, publizitate berezi-rako edo sormenezkorako erabili zen; izendapen horren barnean daude testuaz gain irudi edo diseinuren bat duten iragarkiak. Atal horretan sartzen dira iragarki puntualetik hasi eta egunkarrietan, aldizkarietan, irradian eta telebistan eta bestelako publizitate-euskarri batzuetan presentzia duen publizitate-kanpainara bitarte.

Publizitate arruntaren eta sormenezko publizitatearen kudeaketa lehiaketa bidez adjudikatu izateak (2007an, lehenengoa Tecna SLk irabazi zuen eta bigarrena Gap's Pamplona Comunicación enpresak) aukera eman zuen hedabideetan espazioak kontratatzerakoan beherapen batzuk lortzeko (% 14 eta 70 bitartekoak, hedabidea zein den). Horri esker, Nafarroako Gobernuak, 800.000 euro baino gehiago aurreztu zituen.

Inbertsio ekonomikoaz gainera, Nafarroako Gobernuaren publizitate-presentziaren beste adierazle bat da, soilik tokiko prentsa hartuta, 2007an,

959 iragarki jarri zirela (519 Diario de Navarran eta 440 Diario de Noticiasen).

PUBLIZITATE KANPAINAK. Nafarroako Gobernuak, joan den urtean, hogei publizitate kanpaina inguru sustatu zuen. Halako kanpainatzat jotzen dira iragarki bat baino gehiago dituzten jarduerak, 15.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak. Kanpaina horien guztizko gastua 4.045.861 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 20 gehiago, beraz, funtsean kanpaina-kopuruak gora egin duelako. Ekintza mota honek sormeneko publizitatearen bi heren egiten du (% 64,1). Ehuneko hori aurreko urtekoaren ia berdina da (% 61,1).

Turismo kanpaina, askorengatik, munta ekonomiko handiena duena da: 2.793.768 euro. Ondotik, honakoak datoz: errenta kanpaina (300.000 euro), immigrazioaren fenomenoaren aurrean sentsibilizatzeko kanpaina bat (199.945 euro) eta bide segurtasunari buruzko beste ekintza bat (179.246 euro).

100.000 eurotik gora, beste ekimen batzuk ere badaude: nerabeengan droga-kontsumoari aurrea hartzekoa (137.029 euro), Nafarroako Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeetan botoa sustatzekoa (129.897 euro), Nafarroaren Eguna (120.734 euro) eta "Nafarroa martxan" Foruaren Hobekuntzaren XXV. urteurrena ospatzeko erakusketa (102.040 euro).

Honakoa da gainerako kanpainen banaketa: lanbide heziketaren sustapena (81.328 euro), Erriberriko jaialdia (66.606), irakasleen lana aitortzea (56.597 euro), martxoaren 17k manifestazioa (55.106 euro), etxeko tresna elektrikoen renove plana (47.446 euro), menpetasuna dutenei laguntza emateko informazioa (42.678), autobus geltokiaren inaugurazioa (34.200), teknologia berrietarako sarbidea (34.564), Nafarroako historiari buruzko liburuaren enkartea (27.279 euro), eskola publikoko matrikulazioaren sustapena (20.320), Nafarroako Aldizkari Ofizialaren egituratze berria interneten (20.311) edo suteei aurrea hartzea (19.653).

Ekimenen multzo horretatik, batzuk urtero programa, jarduketa edo zerbitzu jakin batzuk ezagutzera emateko egiten diren kanpainei dagozkie: PFEZaren kanpaina, Nafarroaren Eguna, lanbide heziketaren sustapena, etxeko tresna elektrikoen renove plana, Erriberriko antzerki klasikoko jaialdia edo suteei aurrea hartzeko kanpaina.

Gainera, bestelako publizitate bat ere badago, berez kanpaina izatera iritsi gabe ere atal honetan sartzen dena, zeren eta hedabide mota bakar batean garatzen baita, inbertsio eta zabalkunde bolumen handia dakarrena, hedabidearekin urte

osoan zehar presentzia egonkorra edukitzeaz gainera. Honakoak dira: herritarrei aholku emateko mikrosailak, Cope, Ser eta Onda Cero irratiaren programatzen direnak (haien aurrekontua 62.457 eurokoa da); Diario de Navarraren webguneko bannerrak (58.062) eta Periodista Digitalekoak (19.331) eta ADNren "Leer es Vivir" Nafarroako Gobernuaren argitalpenei buruzko atala.

Kanpaina horiek kontratatze modalitateari dagokionez, guztiak ere urte hartan publizitatearen adjudikazioa hartutako agentziari enkargatu zitzaizkion.

DEPARTAMENTUEN ARABERAKO GASTUA. 2007ko publizitate-gastu handiena Kultura eta Turismo Departamentuak egin zuen, 2.611.096 euroko inbertsioarekin. Horren arrazoia dira, gehien bat, adierazi dugun bezala, nazio mailan egin diren turismo-sustapeneko kanpainak. Halaber, departamentu hori da kultur jarduera ugari sustatzen dituen, eta jarduera horietarako publizitate-ekintzak egin behar dira: jaialdiak, Udazkeneko Bira eta Udaberriko Bira, musika zikloak, zinema, erakusketak, lehiaketak eta abar.

Ondotik, distantzia handi batera bada ere, Gobernuaren Eledunaren eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentua dago (Toki Administrazioa, abuztura arte), 1.421.408 euroko inbertsioarekin. Departamentu hori, zeinari atxikita baitago Komunikazio Zuzendaritza Nagusia, eta zuzendaritza nagusi hori da Nafarroako Gobernuaren publizitatea kudeatzeko eta koordinatzeko ardura duena, eta, horrenbestez, ekimen garrantzitsuenetako batzuen sustatzailea. 2007an, honako gaiei buruzko kanpainak finantzatu zituen: immigrazioa, Foruaren Hobekuntzari buruzko erakusketa eta Nafarroaren Eguna. Halaber, laguntza ekonomiko handia eman zuen turismo kanpainarako eta bide segurtasuneko kanpainarako. Gainera, kontratazio iraunkor batzuk ordaintzen ditu; esate baterako, bannerrak, irratiko mitrosailak eta abar.

Antzeko zenbatekoekin baina inbertsio maila askoz ere apalagoarekin, honakoak ageri dira: Hezkuntza (355.150 euro), Ekonomia eta Ogasuna (347.975) eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu (303.838 euro). Posizio horretan daude zeren eta guztietan munta handi samarreko kanpainaren bat egin zelako: lanbide heziketa sustatzekoa, eskolaratzeari buruzkoa eta irakasleak aitortzekoa (Hezkuntza), errentari buruzkoa (Ekonomia) eta etxeko tresna elektrikoen Renove Planarena (Industria).

Honakoa izan zen beste departamentuetako banaketa: Osasuna (288.986 euro), Herri Lanak, Garraioa eta Komunikazioak (237.352 euro), Lehendakaritza, Justizia eta Barnea (181.950

euro), Gizarte Gaiak, Kirola eta Gazteria (108.658 euro), Landa Garapena eta Ingurumena (69.212 euro), eta Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamendua (39.118).

ZABALKUNDE BIDEAK: PRENTSA ETA ALDIZKARIAK Hedabideen arabera banaketari dagokionez, gehien nabarmendu behar dena da prentsan egindako inbertsioa berreskuratu dela, telebistan egindakoaren kaltetan; hain zuzen ere, 2006an gertatutakoaren kontrakoa da. Ondoren, euskarri desberdinetako gastua zehazten dugu, hedabide bakoitzeko inbertsio-kopuru garbien arabera (BEZik eta produkzio kosturik gabe, beraz).

2007an, egunkarietako iragarkiek 2.175.599 euro (BEZik gabe) egin zuten (1.450.578 euro tokiko prentsan eta 725.021 euro prentsa nazionalen). Gastuak % 29 egin zuen gora aurreko urtekoarekin alderatuta. Hazkunde hori tokiko prentsan ere (% 31,5) gertatzen da, baina bereziki prentsa nazionalen ikusten da (% 57,8), turismo-kanpaina tarteko. Igoera horrek aukera eman dio publizitatearen guztizkoko garrantzi espezifikoan ia 10 puntu berreskuratzeko, halako moduz non inbertsioaren % 40 hartzen baitu.

Igoera gertatzen da sormena duten iragarkietan, zeinek 1.615.368 euro (+ % 39,9) egiten baitute; bitartean, oharrei buruzko iragarkietan egindako inbertsioak % 5,6 egin zuen behera (550.232 euro). Azken horretarako bi arrazoi daude: alde batetik, publizitate jarduera txikiagoa, eta bestetik tarifaren beherapenak lau puntu igo izatea (% 14raino).

Hedabideei erreparatuta, Diario de Navarra egindako inbertsioa 981.636 eurokoa izan zen (2006an baino % 15,3 handiagoa), Diario de Noticias egindakoa 422.979 eurokoa izan zen (2006an baino % 22 gehiago) eta ADNn egindakoa, berriz, 47.043 eurokoa izan zen (% 37,7 handiagoa). Lehenengo biei dagokienez, esan behar da bietan gora egin zuela sormenezko publizitateak eta behera, berriz, publizitate arrunta eta desjabetzei buruzkoa.

Datu horien arabera, Diario de Navarra tokiko prentsan egindako inbertsioaren % 67,6 hartu zuen, foru erkidegoko egunkari-irakurleen guztizkoaren % 58,7ko hedapenarekin (CIESen datuak dira, 2007koak, ADN sartuta) eta Diario de Noticias, berriz, inbertsioaren % 29 hartu zuen, irakurleen % 24,4 edukita. Azkenik, ADNn inbertsioaren % 3,2 hartu zuen, irakurleen % 16,8arekin, nahiz eta eragin horietarako gogorarazi behar den ADN doanekoa dela.

Prentsa nazionalari erreparatuta, nabarmentzekoa da El País egunkariak, inbertsioa 407.475

eurorik, atal honetako gastuaren % 56,2 hartu zuela, El Viajero gehigarrian jarritako turismo-iragarkietatik.

Aldizkariak, Nafarroako tokiko aldizkariak nahiz nazio-estaldura dutenek, 620.499 euroko inbertsioa hartu zuten, 2006an baino % 37 gehiago. Igoera horren arrazoia da, neurri handi batean, nazioko aldizkarietan eta bidai-aldizkarietan jarritako turismo-iragarkien presentzia lehengora itzuli dela. Gainera, hazi egin da Nafarroako tokiko aldizkarietan egindako inbertsioa. Oro har, ehun aldizkari baino gehiagotan jarri ziren iragarkiak.

ZABALKUNDE BIDEAK: IKUS-ENTZUNEZKOKA. Ikus entzunezkoen sektoreari dagokionez, nabarmentzekoa da, zenbaki absolutuetan, telebistan egindako inbertsioa, aurreko urtekoaren aldean behera egin badu ere, eta irratiko inbertsioa handitu izatea. Zehazki, 1.078.576 euro erabili ziren telebista spotak egiteko (2006an baino % 36,7 gutxiago). Zenbateko hori publizitatean egindako inbertsio guztiaren % 17 da; aurreko urtean, berriz, % 31 zen. Beherakada hori azaltzen da gastu txikiagoa egin delako nazio esparruko turismo-kanpainaren barruan, eta tokiko kateetako mikrosailak desagertu direlako.

Honakoa izan zen irratien banaketa, inbertsio handienetik inbertsio txikienera:

299.000 euro TVEn (% 41 gutxiago 2006an baino), nahi zeta lehenengo postua betetzera pasa eta sektorerako bideratutako guztiaren % 21 hartu. Ondotik, Tele 5 dator. Lehenengo aldiz agertzen da, 268.861 eurorik (inbertsioaren % 18,8). Ondoren datoz Antena 3, 155.311 eurorik (% 77 gutxiago 2006an baino eta inbertitutako guztiaren % 10,8) eta TV3 (109.950 euro, % 24 gutxiago eta guztizkoaren % 7,7).

Distantzia handira datoz Cuatro (76.779 euro eta guztizkoaren % 5,5) eta Gaztela Leongo Canal 4n (34.884 euro eta guztizkoaren % 2,4). Azkeneko tokietan daude Gaztela-Mantxako La Tribuna TV (11.753 euro), Intereconomía TV (13.212) eta Aragón TV (11.661 euro), guztizkoan garrantzi txikia dutenak.

Tokiko esparruan, beherakadak nabarmenak izan dira eta haien arrazoia izan da, aipatu den bezala, Nafarroako Gobernuak babestutako aholkuen mikrosailak desagertu direla. Hartara, Canal 6n inbertsioa 25.465 eurokoa izan da (2006an baino % 77 gutxiago); Canal 4n 18.598 eurokoa izan da (-% 68,8) eta Popular Televisiónen 14.486 eurokoa (- % 72,7), guztiak ere inbertsio guztiaren % 1 inguru dutela.

Aitzitik, hazkunde handia izan zuten, zenbatekoa bikoiztu baitzuten, zinema-aretoetan botatuko spotek (149.160 euro), dela hedabide hori guztiz egokia delako kanpainaren xedea den populaziora iristeko (drogen kontsumoari aurrea hartzearen kasuan) dela kanpaina gehiago programatu direlako, horren barne dela turismo kanpaina, zeina foru erkidegoan bertan ere zabaldu baitzen.

Bestalde, irrati-iragarkien inbertsioak 333.567 euro egin zuen. Zenbateko hori 2006an inbertituta-koaren halako hiru da. Beste behin, justifikatuta dago aurrez azaldukoarengatik (kanpaina gehiago egin dira, eta bereziki turismo-kanpaina da aipatzekoa).

Inbertsioaren banaketa honako hau da: Cadena Serek 53.884 euro Portu zituen (guztizkoaren % 16 eta aurreko urtean baino % 95 gehiago), Onda Cerok 43.167 euro hartu zituen (guztizkoaren % 12,9 eta % 56,9 gehiago) eta Cope Navarrak 42.454 euro eskuratu zituen (guztizkoaren % 12,7 eta % 33,5 gehiago).

Nazio mailako estaldura duten irrati-tietan honakoa izan zen banaketa: 29.795 euro Copen, 29.396 euro Onda Ceron, biak ere kontratazioaren % 8 ingururekin, eta 10.674 euro (guztizkoaren % 3,1) Seren. Halaber, igoera handiak izan ziren musika-kateetan. Hauexek dira datuak: 40 Principalesek, 28.193 euroekin, lehengo inbertsioaren bost halako jaso du; Cadena 100ek (14.400 euro), Kiss FMk (12.777 euro) eta Europa FMk (12.520 euro) lehen jasotakoaren 2, 3 edo 4 halako jaso dute.

Atal hau osatzen da irrati-tien beste dozena erdi batekin, Catalunya Radiotik hasi eta nazio mailako Kiss FMraino, tokiko beste batzuetatik igarota (Onda Ribera, Punto Radio Estella, Xorroxin Irratia eta abar), zeinek 4.000 eurotik beherako inbertsioak hartu baitituzte.

KANPOKO EUSKARRIAK. Kanpoko euskarriek (markesinak eta hesiak) 175.897 euroko gastua ekarri zuten (2006an baino % 81 gehiago). Horiei banderatxoetan gastatutako beste 16.560 euro gehitu behar zaizkie. Bestalde, beste 92.589 euro erabili ziren sustapen objektu batzuetarako (boligrafoak, egutegiak, orrialde-markatzaileak eta abar), aurreko urteko kopuruaren bi halako hain zuzen; beste 67.261 euro liburuxkak egiteko erabili

ziren (% 73 gehiago) eta 23.321 euro, azkenik (% 200 gehiago) afixak egiteko.

Halaber, guztira 153.154 euro inbertitu ziren (% 210 gehiago) interneteko atarietako publizitatean; 64.452 euro (% 10 gutxiago) kanpainak sustatzeko zenbait ekintzatan (azafatak, aurkezpenak, zizkamizkak eta abar), 37.585 euro zenbait materialetan (txartel handiak, zorionak emateko txartelak, aurkezpenetarako afixak, DVDak eta abar).

Atal honetan, ia guztiek igoerak izan arren, publizitate-jarduerak, orokorrean, gora egin duela, nabarmentzekoa da interneten egindako inbertsioa, turismoa sareko atarietan banatzearen ondorioz.

SORMENAREN ETA EKOIZPENAREN KOSTUA. Jatorrizko dokumentuak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, diseinatu eta sortzeko kostua 448.889 eurokoa izan zen (2006an baino % 32,5 gehiago). Kopuru horretatik, 240.570 euro telebistako spotei dagozkie (% 66 gehiago), 102.832 euro (% +20,7 gehiago) prentsa arruntean iragarkiak ateratzeari; 50.891 euro (% 15 gehiago) sormena duten iragarkien produkzioari; 21.833 euro (% 95 gehiago) zinemarako spotak egiteari (kineskopatua eta zintak); 19.595 euro (% 200 gehiago) irrati-iragarkiak egiteari eta 10.935 euro aldizkarietarako iragarkiak egiteari eta egokitzeari. Bestalde, markesinetako, liburuxketako eta beste euskarri batzuetako sormen-laneko gastua produkzio-kostuaren barrenean dago.

Atal honetan, nabarmentzekoa da telebista spotek gora egin dutela. Horren arrazoia da metraje luzeagoko (30'' y 45'') ikus-entzunezkoak erabili direla, bai eta nazio mailako produktoreen kontratazioa eta anbizio handiagoko bitartekoen erabilera ere. Metraje luzeagoa erabiltzeak garestiago egin du spotak zinemetarako egokitzeko gastua.

Bestalde, irrati-iragarkien produkzioan gertatutako igoeraren arrazoia da Nafarroarekin mugakideak diren probintziatarako turismoari buruzko irrati-mikrosailak grabatu direla. Prentsako iragarkien produkzioan izandako igoeraren arrazoia da prentsa-iragarkien produkzioa garestitu dela agentzia adjudikazio-hartzaileen eskaintzetan bildutako diseinuak prezio handiagoa izan duelako; igoera hori konpentsatu da tarifetan lortu diren beherapen handiagoekin.

Galdera, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak Queiles ibaiaren inguruan onetsitako erabakia betetze aldera egin diren urratsei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Legebiltzarreko Osoko Bilkurak Queiles ibaiaren inguruan onetsitako erabakia betetze aldera egin diren urratsei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Queiles ibaiari buruz (8-12-/PES-00067). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioaren kontseilariak:

– Nafarroako Parlamentuak onetsitako ebazpenaren bitartez –2009ko otsailaren 24an argitaratu zen–, Nafarroako Gobernuak premiari zen Queiles ibaia lehengoratzeko plan integral bat aurkeztean, Ebroko Plan Hidrologikoaren esparruan, Queiles ibaiaren ekosistema zaintzeko eta hobetzeko aplikatzekoak diren neurrien plan bat egingez.

– Uraren 2000/60/CE Esparru Zuzentzararen xedea da ur masen egoera ekologiko egokia lortzea eta ekosistemen narriatze gehigarria eragozteko, barruti demografikoen araberako kudeaketa derrigortuz. Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuaren ebazpenak jasotzen duen moduan, Ebroko Plan Hidrografikoa da Europako zuzentzari eta legeen betetzea bideratzen duen esparru-araueko plangintza koordinatuaren bitartez, betiere arroaren batasun-printzipioa errespetatuta.

– Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako ebazpena betetzeko, Nafarroako Gobernuak honako urratsak egin zituen:

~ Queiles ibaiaren arroa dela-eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa bultzatutako parte-hartze prozesuan sortutako neurriak biltzea, zehazki, Tuteran, Murchante, Cascante, Ablitas, Tulebras, Barillas eta Monteagudoko

udal barrutiei dagozkienak. Neurri horiek udalek, gizarte eragileek, talde ekologistek, eragile ekonomikoek eta ureztatzaileek proposatu zituzten.

~ Ebroko Plan Hidrologikoaren neurrien programaren barruan fitxa batzuk sartzea Queiles ibaiaren arroan, Nafarroan, egin beharreko jarduketari buruz, Nafarroako Gobernuaren eskumenen arloetan; honakoak, zehazki:

- Ebroko arroko Nafarroako ibaiertzak lehengoratzeko neurriak. 4. ustiatze-batzarrean: Ebroko adar diren arroak, Lezati hasi eta Huecharaino, Nafarroako Gobernuaren funtsekin finantzatutako jarduketak egiteko, helburu ugariarekin; honakoak, besteak beste: arroetako huste-ahalmenari eustea, ibaiertzak lehengoratzeko eta ibaietako habitata hobetzea.

- Nafarroako Gobernuaren Ibaien Arazketarako eta Saneamendurako Plan Zuzendaria (2006-2015), Nafarroako uren kalitateari eusten eta hobetzen laguntzeko, hirietako hondar-uren isuriek daukaten eragina gutxituz, Uraren Esparru Zuzentzarauak 2015erako bultzatzen zuen egoera ekologiko egokiaren helburua erdieste aldera, honakoetarako behar diren jarduketak eginez: urak babestea, haren narriadurari aurrea hartzea eta egoera txarrean daudenak berreskuratzea; arazketarako antzinako instalazioak erreformatu eta hobetzea; Nafarroako arroetan erregimen hidriko aldakorra dela-eta dauden arazoei heletzea –udan emari oso txikiak daude eta, gainera, saneamendu-sare unitarioak daudenez, ur nahasien deskarga handiak jasotzen dituzte ekaitzak daudenean; 250 biztanletik gorako biztanle-guneetako arazte biologikoa; eta mantenuerako (fosforoak) kentzeko jarduketak, Nafarroa eremu sentigarritzat deklaratu baitago.

~ Nafarroako ibaietako ibaiertzak lehengoratzeko neurrien fitxa betetzearen ondorioetarako, 2009an zehar, departamentuko teknikariek landa-errekonoizimendu bat egin zuten, Ingurumen Departamentuko zaindarien laguntzarekin; gero, bilerak egin ziren

udalekin, eta jarduteko toki batzuk finkatu ziren. Aurkitutako arazoan eta 2010ean zeuden eskarien ondorioz, Queiles ibai-arroko Tuterako Cajanes Altos, Tulebrasko eta Monteagudoko El Plano eta Barillasko El Soto sotoetarako ingurumen-hobekuntzako proiektu bat idatzi zen. Proiektu horren xedea zen Queiles ibaiko ibaiertzak eta soto naturalak lehengoratztea, berreskuratze natural hori aisiarako erabilerarekin bateragarri eginez. Jarduketak Tuter, Tulebras, Monteagudo eta Barillasko udalen jabetzako nahiz kudeaketako lursailetan egin ziren. Obrak 2010eko udan eta udazkenean egin ziren, 42.793,95 euroko aurrekontuarekin.

~ Nafarroako Gobernuaren Ibaian Arazketarako eta Saneamendurako Plan Zuzendariaren neurrien fitxa betetzeko, honako jarduketak egin dira, eta guztiak ere edo amaituta daude edo amaitzeko zorian daude:

1- Monteagudoko hondakin-uren araztegia, zein herriko nekazaritza-elikagaien enpresa batek isurtzen dituen hondar-urak hartu ahal izateko prozesua aldatu baita. Aldaketa hori dela eta, aukera dago planta mantengaiaren maila (nitrogenoa eta fosforoa) biologikoki gutxitzeko gai da, eremu sentigarrietan isurtzen duten 10.000 biztanletik gorako herriguneetarako ezarritako mugez beherago. Halaber, hirugarren mailako tratamendua aldatu da, instalazioari sendotasun eta segurtasun gehiago emate aldera.

2.- Ablitasko antzinako araztegia, 25 urtetik gorako antzinatasunarekin, erabileratik kanpo utzi-

ko da eta tratatzen dituen isurketak Ebro Behereko araztegiraino bideratuko dira. Ablitas eta Ribaforda arteko hustubidearen obrak nahiko aurreratuta daude, eta aurreikusita dago 2013an hasiko dela hustubide hori erabiltzen. Obra horri esker, Ablitasko araztutako uraren hondar-kutsadura Ebro ibairaino bideratu ahalko da, Queiles ibaiaren autoarazketarako ahalmena areagotuz.

Bi obra horiez gainera eta beste batzuei ekin baino lehen, ez dago aurreikusita inongo alde aurreko exekuzio egitea Ebroko Plan Hidrografikolari behin betiko onespina eman baino lehen. Bitartean, isuriek ekaitza denboretan izaten dituzten ezaugarriak aztertzen ari dira Cascanten eta Murchanten, egiaztatze aldera diluzioa behar adinakoa den, ekaitz-tanke berriak egin behar ez izateko. Hala bada, gomendatuko litzateke euri-urak ur beltzen kolektoretik deskonektatzea eta drainatze jasangarriko hiri sistemak (SUDS deitutakoak) ezartzea.

ERANSKIN batean, Ebroko Plan Hidrografikoko neurrien programaren barruan aipatutako fitxak gehitu ditugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 9an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Foruzaingoak Foru Komunitateko kale eta errepideetan eginiko kontrolei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nekane Pérez Irazabal andreak egindako galderaren erantzuna, Foruzaingoak Foru Komunitateko kale eta errepideetan eginiko kontrolei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak informazioa eskatu du Foruzaingoak azkeneko bost urteetan egin dituen kontrolekin zerikusia duten gai batzuei buruz (8-13/PES-00066). Hauxe da Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak eman dion informazioa:

1. Foruzaingoak Nafarroako Foru Komunitateko kale eta errepideetan egin dituen kontrolak:

Urtea	Herritarraren Segurtasuna	Bide Segurtasuna	GUZTIRA
2008	7.173	8.822	15.995
2009	7.825	9.555	17.380
2010	6.850	9.634	16.484
2011	7.491	9.399	16.890
2012	10.864	9.462	20.326

2. Taula bat erantsi dugu Foruzaingoaren kontrolen guztizko kopuruarekin. Bertan sartzen dira pertsonen eta hiri-segurtasuneko kontroletan identifikatutako ibilgailuen guztizko kopurua. Ez dago ustiatzeko moduko datu-baserik kontrol bakoitzean identifikatutako pertsonen banakako kuantifikazioa jasotzen duenik. Atxilotuen kopuruari dagokionez, ezin dugu hura zehaztu, zeren eta ez baitago kontrolen ondorioz atxilotutakoen estatistikarik. Gainera, pertsona bat polizia-kontrol batean atxilotzeak

zerikusia izan dezake kontrola ezartzekoaz beste arrazoiren batekin; esate baterako, alkoholemia kontrol batean gerta daiteke pertsona bat atxilotzea hura atxilotzeko eta espetxean sartzeko bilaketa-agindu bat badagoelako, edozein epaitegik eginga. Atxilotetaren arrazoiak, bilaketa-agindukoak, ez du zerikusirik kontrolaren arrazoiarekin, alegia alkoholaren eraginpean gidatzen ari diren pertsonak atxilotzea.

HERRITARREN SEGURTASUNA						
KONTROLAK	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Identifikatutako pertsona kopurua	48.032	57.878	59.810	68.241	58.794	11.780
Identifikatutako ibilgailu kopurua	36.931	36.752	38.361	39.390	35.025	8.227
Hiri segurtasuneko polizia-kontrolako dispositiboen kopurua	7.173	7.825	6.850	7.491	10.864	5.746

TRAFIKOA ETA BIDE SEGURTASUNA						
KONTROLAK	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Radarra - Kontrol kopurua	1.775	1.735	1.944	1.754	1.259	371
Garraioak - Kontrol kopurua	4.402	5.076	5.385	4.908	5.394	1.790
Besterik - Kontrol kopurua	1.635	1.704	1.294	1.644	1.524	296
Alkohola - Kontrol kopurua	1.010	1.040	1.011	1.093	1.285	457
Bide segurtasuneko kontrolak, guztira	8.822	9.555	9.634	9.399	9.462	2.914
Radarra - kontrolatutako ibilgailuak	468.356	509.513	552.046	503.883	551.153	168.158
Garraioak / kontrolatutako ibilgailuak	16.799	15.652	15.874	22.233	20.457	6.020
Besterik - kontrolatutako ibilgailuak	321.083	421.328	647.043	934.231	1.074.725	301.487
Alkohola (egindako probak)	42.681	48.738	48.272	61.466	57.272	10.197
Drogak (egindako probak)	ez dago eskuragarri	197	325	481	9.416	32
Kanpaina bereziak	ez dago eskuragarri	241	42	37	54	70

3. Foru Gobernuak Polizia Nazionalak edo Guardia Zibilak egiten dituen kontrolak ezagutzen ditu baldin eta efektiboan edo/eta eginbeharren banaketa bat egin bada, Segurtasuneko Tokiko Batzar batean edo bestelako koordinazio-organoren batean, tokiko batzarrak nahiz koordinazio organoak biltzea gomendagarritzat jo den ekitaldi edo egoeretan.

Gauza bera informazio hori izaten du plan bateratuen barreneko jarduketak direnean. Era berean, beste batzuetan ere izaten du informazio hori, trafikoko eragina izan dezakeenean. Trafikoko kontrolak beti jakinarazten dira, zeren eta Nafarro-

ako Bide Segurtasunerako Estrategiaren esparruan koordinatutako kanpainetan egon ohi direlako.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak ez du segurtasuneko beste kidego eta indarren kontrolen erregistrorik. Hori dela eta, ezinezko zaio eskatutako informazioa ematea.

4. Nafarroako Gobernuak badaki Foruzaingoaz besteko segurtasun kidego eta indarrek kontrolak egin izan dituztela Nafarroako Gobernuari jakinarazi gabe, baina ez du halakoen erregistrorik.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aplikatuz Euskaltzaindiari emandako laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aplikatuz Euskaltzaindiari emandako laguntzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak azken bost urteotan Nafarroako Diru-laguntzei buruzko Foru Legea aplikatuz Euskaltzaindiari emandako diru-laguntzei buruz (8-13/PES-00072). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, dagokion organismoak egindako txostenean oinarriturik:

Nafarroako Foru Diputazioa Euskaltzaindiari sortu zuen erakundeetako bat izan zen, eta harekin egiten du lan 1918tik, urte hartan sortu baitzen.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, 3. artikuluan, Euskaltzaindiari erakunde aholku-emailearen izaera aitortzen dio, hizkuntza arauak Nafarroan ezartzeari dagokionez, eta aurreikusten du horri buruzko txosten eta irizpenak eskatzea. Halaber, Euskarari buruzko Foru Legeko 8.2 artikuluan Euskaltzaindiaren jardura araupetzen da, toponimiari buruzko txostenak egiteko erakunde gisa.

Nafarroako Gobernuak urtero lankidetzahitzarmen bat sinatzen du Euskaltzaindiarekin, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean aurreikusitakoa betetzeko.

Lankidetzahitzarmena da Euskarari buruzko Foru Legean ezarritakoa betetzeko urtero egin beharreko jarduketak ezartzen dituen tresna. Horrenbestez, ez da aukerako diru-laguntza bat edo baiets daitekeen ala ezets daitekeen diru-laguntza baten bitartezko sustapen-jarduera bat. Nolanahi ere, Euskarari buruzko Foru Legean ezarritakoa betetzeko Euskaltzaindiak egin beha-

rreko lanak ezartzen dituen hitzarmen honek, halaber, Diru-laguntzei buruzko Legean ezarritako prozedurak errespetatzen ditu.

Euskarari buruzko Foru Legeko 3. artikuluan ezarritakoa zuzen betetzeko, hizkuntza arauak ezartzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak, beste ekimen batzuen artean, Euskaltzaindiaren Euskal Korpus Onomastikoa gaurkotzen laguntzen du. Izan ere, hizkuntza-terminoen erregistro-eta gaurkotze-lan bat da hori. 2012n, 2.112.152 erregistro kontabilizatu ziren, idatzizkoen eta ahozkoen artean.

Datu base horren prestaketa eta mantentzea da Nafarroako Gobernuari "hizkuntza araua" ezagutzeko eta "errespetatzea" ahalbidetzen dion funtsezko elementuetako bat da; halaber, aukera ematen dio Euskaltzaindiaren eskutik "beharrezko zaizkion txosten eta irizpen" guztiak lortzeko, foru legeko aipatutako 3. artikulua agintzen duen bezala.

Euskarari buruzko Foru Legeko 8.2 artikuluan ezarritakoa zuzen betetzeko, eta Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko toponimoak (lurraldeen, biztanle-guneen, hiri arteko bideen, katastro aldaketen eta abarren izen ofizialak) finka ditzan, beharrezkoa da Euskaltzaindiak aurrez txostena eman dezala, zeren eta egin ezean foru lege horretan ezarritako prozedura urratzen ariko baiki-na.

Azken urte hauetan, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateek eskatuta, Euskaltzaindiak toponimiari buruzko txosten ugari egin ditu.

Txosten horiek egiteko datu base bat eduki beharra dago, eta datu base horren mantentzea eta gaurkotzea Euskaltzaindiak egiten duen lana da. Horretarako, funtzionamendu-, langile- eta inbertsio-gastuak dauzka.

Nafarroako Gobernuak beharrezko zaizkion txostenak ezin izanen ditu jaso haiek posible egiten duten tresnak egoteko, mantentzeko eta gaurkotzeko lanetan laguntzen ez duen neurrian. Bestela ere, datu base berekiak edukitzeak kostu askoz ere handiagoak ekarriko lituzke.

Ondoren, azken bost urteetako (2009-2003) hitzarmenen kopuruak zehazten ditugu, bai eta Euskaltzaindiak, lankidetzahitzarmena betetzeko, egin dituen lanak ere:

2009. urtean: 235.000,00 euro

Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA): Nafarroako lau herritan (Erratzu, Etxalar, Leitza eta Urdiain) egindako grabaketak digitalizatu eta aurkeztea.	6.302,00 €
Euskal Corpus Onomastikoa (ECO): zuzendaritza eta analisisa, lan teknikoak.	79.731,29 €
Nafarroako foru legeen hustuketa terminologikoa: digitalizazioa eta datu-base bat egitea.	45.020,92 €
Nafarroako Euskararen Mediatekarako unitate didaktiko bat egitea.	6.000,00 €
Nafarroako euskalkiei buruzko txosten bat.	2.000,00 €
<i>Elkartasuna</i> aldizkariaren digitalizazio lanak.	12.000,00 €
Toponimiako txostenen digitalizazioa.	750,00 €
Mendaur bilduma argitara ematea: Koldo Zuazo dialektologoaren "Sakanako euskara. Burundako hizkera" lana.	2.387,47 €
Nafarroako Gobernuak zenbait urtez argitaratutako liburuen egile-eskubideak ustiatzeko gastuak	6.950,00 €
Euskaltzaindiak egiten dituen izaera orokorreko beste jarduketa batzuk.	73.858,33 €
GUZTIRA	235.000,00 €

2010. urtean: 149.000,00 euro

Euskal Corpus Onomastikoa (ECO): zuzendaritza eta analisisa, lan teknikoak.	80.000,00 €
Katalogazio-modulua, Nafarroako Liburutegi Nagusirako.	7.308,00 €
Mendaur Bilduma IX: Perpetua Saraguetari buruzko liburua idazteko lanak.	10.000,00 €
<i>Elkartasuna</i> aldizkariaren digitalizazio lanak.	1.800,00 €
Euskaltzaindiak egiten dituen izaera orokorreko beste jarduketa batzuk.	49.892,00 €
GUZTIRA	149.000,00 €

2011. urtean: 149.000,00 euro

Euskal Corpus Onomastikoa (ECO): zuzendaritza eta analisisa, lan teknikoak.	74.997,05 €
Nafarkaria gehigarria digitalizatzeko lanak.	17.700,00 €
Mendaur Bilduma IX: Perpetua Saraguetari buruzko liburua eta CDa argitaratzea.	6.020,00 €
Euskaltzaindiak egiten dituen izaera orokorreko beste jarduketa batzuk.	50.282,95 €
GUZTIRA	149.000,00 €

2012. urtean: 87.314,00 euro

Euskal Corpus Onomastikoa (ECO): zuzendaritza eta analisia, lan teknikoak.	76.301,40 €
Mendaur Bilduma X: Amaia Apaulazaren doktore-tesia: <i>Imotz, Basaburua Nagusia, Larraun eta Araitz-Beteluko euskara</i>	11.012,60 €
GUZTIRA	87.314,00 €

2013. urtean: 80.000,00 euro

Euskal Corpus Onomastikoa (ECO): zuzendaritza eta analisia, lan teknikoak.	70.893,44 €
Toponimiako eta onomastikako lanak	9.106,56 €
GUZTIRA	80.000,00 €

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren araudia Kontuen Ganberaren txostenean jasotako gomendioen arabera aldatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren araudia Kontuen Ganberaren txostenean jasotako gomendioen arabera aldatzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak lanean dabilzan langileentzako prestakuntzari buruzko araudia egokitu duen, Kontuen Ganberaren txostenean aurreikusitakoaren arabera (PES-73).

Hona Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Maiatzaren 24ko 414/2013 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak deialdi bat onetsi zuen prestakuntza planak egitera zuzendutako diru-laguntzak emateko. Lurralde esparruko deialdia zen, soilik Nafarroako Foru Komunitaterako, eta lanean ari ziren pertsonak lehenesten zituen, martxoaren 7ko TAS/718/2008 Agindua aplikatuz –agindu hori abuztuaren 2ko ESS/1726/2012 Aginduaren bidez aldatu zen–.

Deialdiaren hamahirugarren oinarriak ezartzen du hurrengo entitateek diru-laguntzak eskatu ahal-ko direla planak egiteko:

1. 12.a) oinarrian aurreikusitako sektore-arterko prestakuntza planak egiteko, estatu mailan eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordezkari handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeak.

2. Gizarte ekonomiako langileei eta bazkideei berariaz zuzendutako sektore-arteke prestakuntza planak egiteko, jarduera ekonomikoa baldin badute, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruko sektore-arteke konfederazioak eta federazioak, behar adinako ezarpena baldin badute, honako baldintzen arabera:

a) Gutxienez ere, Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legeko 5. artikuluan jasotako gizarte ekonomiako entitateak ordezkatzen dituzten erakundeetatik hiru biltzea, Nafarroako Foru Komunitateko esparruari dagokionez.

b) Egoitza sozial iraunkorra edukitzea, berekia nahiz Nafarroan hartan integratutako erakundee-na.

c) Beren egituran giza baliabideak edukitzea.

d) Prestakuntza garatzeko instalazioak edukitzea.

3. Honakoak eskatu ahal izanen dute berariaz langile autonomoei zuzendutako sektore-arteke prestakuntza-planak egitea:

a) Langile autonomoen sektore-arteke lanbide elkarteak, baldintza hauen arabera:

– Nafarroako Langile Autonomoen Lanbide Elkartearen Erregistroan izena emanda egotea.

– Beren egituran giza baliabideak edukitzea.

– Prestakuntza garatzeko instalazioak edukitzea.

b) Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legeko 21.5 artikuluan aipatzen diren sindikatu-erakundeak.

4. 12.d) oinarrian aurreikusitako prestakuntza planetarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kreditatutako prestakuntza-zentro eta –entitateak, honakoaren arabera:

a) Ziurtagiri berean edo ziurtagiri beretan aurkezten direneko prestakuntza planaren arlorako profesionaltasuna kreditatzea.

b) Deialdi hau argitaratzen unean kreditatzea, diru-laguntza eskuratzeko xedea diren prestakuntza-espezialitateetarako.

Jakitera ematen da diru-laguntzetarako deialdi honek abuztuaren 2ko ESS/1726/2012 Aginduan aurreikusitakoa betetzen duela. Hartara, Nafarroako Gobernuak jada betea du Kontuen Ganberako txostenean egindako gomendioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren gaineko dokumentazioa ukatzea babesten duten txosten juridikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren gaineko dokumentazioa ukatzea babesten duten txosten juridikoei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren gaineko dokumentazioa ukatzea babesten duten txosten juridikoei buruz (PES-69). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilariak:

Erantzun honen abiapuntua den baldintza guztiz desberdina da parlamentari jaunak adierazi duenetik, zeren eta ezin baita baieztatu Nafarroako Gobernuak eskatutako informazioa emateari

ezezkoa eman dionik. Uneoro, Nafarroako Gobernuak aditzera eman du informazio hori ez duela eman halakorik ez zuelako, zeren eta entitateak hura emateko legezko betebeharrak ez baitzuen. Hemen, berretsi beharra daukagu hainbestetan esan duguna, Gobernuak behin eta berriz gai hau dela eta dokumentazioa eskatu izan duenean: Nafarroako Aurrezki Kutxa entitate pribatu bat da, Nafarroako Gobernuaz bestekoa, nortasun juridiko independentea duena. Hori dela eta, ezin dira biak nahastu. Bestalde, Nafarroako Gobernuak ez da Nafarroako Aurrezki Kutzaren jabea, eta ez dago ezta ere, haren menpe inongo harreman hierarkikoa dela kausa. Horrenbestez, ezin dio exijitu eskatutako dokumentazioa eman diezaion Parlatuari eskuratze aldera.

Hartara, bada, gai faktiko bat denez, eta ez juridikoa (dokumentazioa ezin ematea, halakorik ez edukitzeagatik), ez dago erabaki hori oinarritzen duen txosten juridikorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Gobernuko eta Sodenako ordezkariak Xiamengo CIFIT Azokan parte hartzeko Txinara eginiko bidaiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuko eta Sodenako ordezkariak Xiamengo CIFIT Azokan parte hartzeko Txinara eginiko bidaiei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuko eta Sodenako ordezkariak Xiamengo CIFIT Azokan parte hartzeko Txinara eginiko bidaiei buruz (PES-76). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. BIDAIA HORIETAKO BAKOITZEAN BILATZEN ZIREN HELBURU ZEHATZAK

2007. urtea (irailaren 8tik 11ra). CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea. Xiamenen egin zen azoka hori.

Jotzen da CIFIT Txinako azokarik garrantzitsuenak dela inbertsioak nazioartean sustatzeko eta alde anitzetako merkataritzarako.

2007a Espainiaren urtea zen Txinan, eta Nafarroak, Espainiako gainerako autonomia erkidego gehienek bezala, erabaki zuten parte hartzea Espainiak herrialde gisa zuen standean, atal independente batean, Nafarroaren eskaintza ezagutzera emateko.

2010. urtea (irailaren 7tik 11ra). CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea. Xiamenen egin zen azoka hori.

Helburua izan zen bilerak egitea balizko inbertsio-egile batzuekin, Nafarroan inbertitzeko aukerak identifikatzeko aldera.

2010. urtea (irailaren 20tik 30era). Txinarako bidaia (Shangai eta Beijing)

Honakoak izan ziren helburuak:

a. Nafarroa ezagutzera ematea, balio erantsi handiko inbertsio txinatarrak erakartzeko.

b. Txinan ezarritako enpresa nafar batzuetara bisitak egitea.

c. Nafarroara erakar litezkeen inbertsio-aukera zehaztetan aurrera egitea.

2011. urtea (irailaren 7tik 10era). CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea. Xiamenen egin zen azoka hori.

Helburua izan zen inbertsio-aukerei buruzko prospekzio bat egitea, Nafarroa Txinaren inbertsioetarako jomuga erakargarri gisa aurkeztuta eta Sodenak atzerriko inbertsio-egileei eskaintzen dizkien zerbitzuak ezagutzera emanda.

2012. urtea (otsailaren 13tik 15era). Beijingera-ko bidaia.

Helburua izan zen Foton Motor-Co. enpresako zuzendariekin biltzea, enpresa hori Nafarroan ezar dadin lortzeko.

2. BIDAIA HORIETAKO BAKOITZEAN LORTU ZIREN HELBURU ZEHATZAK

2007. urtea. CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea. Xiamenen egin zen azoka hori.

Asko izan ziren Nafarroako standean izandako bisitak (69 topaketa, batez ere enpresen aldetik; halere, gobernu-erakundeen eta inbertsio-agentzien bisitak ere izan ziren). Horietako askotan, bisitariak merkatuak, banatzaileak eta inportatzaileak bilatzen zituzten, ez berariaz kanpoan inbertsioak egitea.

Lehenengo esperientzia gisa, azoka positibotzat jo zen, nahiz eta interesgarritzat jo zen hurrengo ekitaldietarako Nafarroa modu argi goan posizionatzea Txinaren inbertsioetarako jomuga ezin egokiago baten gisara.

2010. urtea (irailaren 7tik 11ra). CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea. Xiamenen egin zen azoka hori.

CIFITen esparruan egindako 52 hartu-emanen interesa kualifikatu ondoren, 17 bilera egin ziren Txinako enpresekin, eta haietan Nafarroan inbertitzeko 4 aukera aurkitu ziren.

Balizko inbertsio-egileak aurkitzeko ez ezik, azokak balio izan zuen gakoa izan zitezkeen

biderkatzaileak identifikatzeko (erregio- eta udal-gobernua) eta Txinako negozio-giroa ezagutzeko.

2010. urtea (irailaren 20tik 30era). Txinarako bidaia (Shangai eta Beijing)

a. Nafarroa ezagutzera ematea, balio erantsi handiko inbertsio txinatarrak erakartzeko.

Honako bilerak egin ziren, zeinak balio izan baitute Nafarroa Txinan hobeki ezagut dadin.

- Espainiak Shangain duen merkataritza-bulegoa.

- China International Investment Promotion Platform (CIIP): erakunde publikoa, Txinako Kanpo Merkataritzarako Ministerioarena (MOFCOM). Haren egitekoa da erraztasunak ematea Txinako enpresak kanpoan ezar daitezen. Nafarroa aurkeztu ondoren, CIIPen ordezkariak enpresa bazkideei Nafarroari buruzko datuak eskuratu zizkien.

- Helosina: erakunde pribatua, Txinako enpresak nazioarteratzeko laguntza-zerbitzuak eskaintzen dituena. Nafarroa aurkeztu ondoren, Helosinako ordezkariak enpresa bazkideei Nafarroari buruzko datuak eskuratu zizkien.

- Hangzhouko barrutia: bilera batzuk egin ziren bertako ordezkariekin, bi erregioei buruzko informazioa konpartitze aldera.

- Bilera batzuk egin ziren Shangaiko erakusketaren harira.

b. Txinan ezarritako enpresa nafar batzuetara bisitak egitea.

- Comansa Jie: enpresa horretara bisita egiteko interesa zegoen zeren eta Linden Comansari 10 milioi euroko abala eman baitzitzaien. Berme nagusia zen Comansa Jieren akzioen % 51 pignoratzea.

- Viscofan Technology Co. Ltd: Inaugurazio-ekitaldira joatea, haren egoera eta Nafarroako plantarekiko balizko sinergiak ezagututa.

- Gamesa haren plantara bisita egitea, haren egoera eta Nafarroako plantekiko sinergiak ezagutzeko.

c. Nafarroara erakar litezkeen inbertsio-aukera zehatzetan aurrera egitea.

- Foton Motor Co: haren zuzendariekin biltzea, autobus jasangarriak fabrikatzeko Nafarroan enpresa bat ezartzeko dauzkaten planak ezagutze aldera.

- Citic Guon (ion-litioko baterien egilea): zuzendariekin biltzea, Nafarroaren berri emateko, epe luzean gure erregioan ezartzeari begira. Proiektuak ez du aurrera egin, ibilgailu elektrikoaren merkatuak gutxi aurreratu duelako.

2011. urtea (irailaren 7tik 10era). CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea. Xiamenen egin zen azoka hori.

13 bilera gin ziren enpresa txinatarrekin. 5 inbertsio-aukera identifikatu ziren.

Gehigarri gisa, bisita bat egin zen SBS Zipper enpresaren plantara (munduko bigarren kremaile-egilea), non egiaztatu baitzen interesa zeukate-la Nafarroa ebaluatzeko Europar zabaltzeko zeuzkaten planei begira.

Halaber, bilera batzuk egin ziren Txinako 8 erregiotako ordezkari instituzionalekin.

2012. urtea (otsailaren 13tik 15era). Beijingera-ko bidaia.

Foton enpresako zuzendariekin izandako bileretan lortu zen enpresak konpromisoa har zezala Tafallan ezarri beharreko enpresari laguntzeko. Halere, adierazi ziguten ez zutela konpainiaren akzioetan parte hartzeko borondaterik, Espainiako eta Europako merkatuaren egoerak nabarmen hobera egiten ez zuen bitartean eta proiektuaren bideragarritasuna aurrez ikusteko eskari batzuk bermatzen ez ziren bitartean.

JOANDAKO PERTSONAK

Urtea	Kontzeptua	Parte-hartzaileak
2007	CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea	Ez zen ez Nafarroako Gobernauren, ez Sodenaren ordezkariarik. Carlos Sánchez joan zen Sodenaren ordezkari (Txinan eta Txinarekin jarduerak egiteko FUDU aholku-enpresako zuzendaria)
2010	CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea	Ez zen ez Nafarroako Gobernauren, ez Sodenaren ordezkariarik. Alvaro Gaspar joan zen Sodenaren ordezkari (Ambrosetti Españaiko kontseilari delegatua da. Aholku-enpresa bat da, besteak beste, atzerriko inbertsioa erakartzen aditua)
2010	Txinarako bidaiak (Shangai eta Beijing)	- José M ^a Roig Aldasoro Nafarroako Gobernuko Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria - Begoña Urien Angulo Nafarroako Gobernuko Enpresa zuzendari nagusia - José M ^a Aracama Yoldi Sodenako zuzendari nagusia - Alberto Clerigué Gárate Sodenako Inbertsioen Sustapenerako zuzendaria
2011	CIFIT Azokara (China Investment Fair & Investment Trade) joatea	- César Berrozpe Peralta Sodenako Proiektuen arloko gerentea
2012	Fotón Motor Co., Ltd. fabrikara bisita egitea	- Carlos Fernández Valdivielso Sodenako zuzendari nagusia - Alberto Clerigué Gárate Sodenako Inbertsioen Sustapenerako zuzendaria

4. BIDAIA HORIETAKO BAKOITZEKO GASTUEN ZERRENDA XEHAKATUA, GASTU HORI ZEIN KONTUSAIEN KARGURA EGIN ZEN ADIERAZITA

Urtea	Kontzeptua	Zenbatekoa €
2007	Fude aholku-enpresaren zerbitzuen kudeaketa	19.808
2010	Ambrosetti aholku-enpresaren zerbitzuen kudeaketa	6.000
2010	Joan-etorria, ostatua eta logistika	21.980
2011	Ambrosetti aholku-enpresaren zerbitzuen kudeaketa	17.044
	Joan-etorria, ostatua eta logistika	5.573
2012	Joan-etorria, ostatua eta logistika	2.545

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nafarroako Gobernuak onetsi eta kapital transferentzien bidez betetako aurrekontuari eta toki entitateei eginiko transferentzia arrunten osotasunari eta 2008tik honako zerga bilketaren bilakaerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak onetsi eta kapital transferentzien bidez betetako aurrekontuari eta toki entitateei eginiko transferentzia arrunten osotasunari eta 2008tik honako zerga bilketaren bilakaerari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako

Gobernuak onetsi eta kapital transferentzien bidez betetako aurrekontuari eta Nafarroako toki entitateei eginiko transferentzia arrunten bilakaerari buruz (PES-71). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

1. Nafarroako Gobernuak 2008tik hona onetsi eta kapital transferentzien bidez betetako aurrekontua eta toki entitateei eginiko transferentzia arrunten osotasuna, urtearen eta transferentzia motaren arabera xehakatu.

Eskatutako informazio Excel formatuan erantsi da.

2. 2008tik hasi eta ekitaldi ekonomiko honetara bitarteko zerga bilketaren bilakaera.

Zerga-bilketa, halakotzat ulertuta I. eta II. kapituluetakoko zerga bidezko diru-sarrerak gehi zeharkako ezarpenaren doikuntzak, honakoa izan da, 2008tik gaur arte:

Urtea	Zenbatekoa
2008	3.147.273.503
2009	3.002.719.834
2010	2.836.268.000
2011	3.103.282.000
2012	2.950.517.000
2013 (apirilaren 30era arte)	678.879.363

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 31n

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria, Lourdes Goicoechea Zubelzu

Meta	2008ko aurrekontua		2009ko aurrekontua		2010eko aurrekontua		2011ko aurrekontua		2012ko aurrekontua		2013ko aurrekontua	
	Onetsia	Betea	Onetsia	Betea	Onetsia	Betea	Onetsia	Betea	Onetsia	Betea	Onetsia	Betea
Transferentzia arruntak	252.997.348,00	245.775.530,83	251.033.440,00	255.837.826,95	256.899.366,00	262.576.218,19	267.925.081,00	253.815.826,87	254.474.461,00	254.339.843,28	248.374.084,00	111.447.999,78
4600 Transferentzia arrunten funtsa	176.467.417,00	176.594.185,31	188.602.591,00	188.602.591,00	189.922.809,00	189.922.809,00	196.380.185,00	191.380.185,00	192.452.581,00	192.452.581,00	196.580.332,00	98.859.647,84
4609 Nafarroako tokiko korporazioei egindako besteak transferentzia arruntak	76.529.931,00	69.181.345,52	62.430.849,00	67.235.235,95	66.976.557,00	72.653.409,19	71.544.896,00	62.435.641,87	62.021.880,00	61.887.262,28	51.793.752,00	12.587.751,94
Kapital-transferentziak	157.563.533,00	141.201.179,18	107.949.271,00	104.757.228,77	120.237.271,00	101.635.985,47	89.392.118,00	38.911.814,31	56.166.284,00	45.694.440,30	28.381.052,00	3.779.487,37
7600 Kapital-transferentzien funtsa	54.773.428,00	55.423.512,59	56.197.537,00	48.414.508,10	57.602.474,00	53.076.186,84	59.042.536,00	13.660.629,40	36.914.149,00	32.734.479,93	20.000.000,00	994.111,74
7609 Nafarroako tokiko korporazioei egindako besteak kapital-transferentziak	102.790.105,00	85.777.666,59	51.751.734,00	56.342.720,67	62.634.797,00	48.559.798,63	30.349.582,00	25.251.184,91	19.252.135,00	12.959.960,37	8.381.052,00	2.785.375,63
GUZTIRA	410.560.881,00	386.976.710,01	358.982.711,00	360.595.055,72	377.136.637,00	364.212.203,66	357.317.199,00	292.727.641,18	310.640.745,00	300.034.283,58	276.755.136,00	115.226.887,15

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak 2013ko maiatzaren 8an eginiko agerraldian aipatu zuen txostenaren gainekoa, zeina baita Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzari eginiko ikuskapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak 2013ko maiatzaren 8an eginiko agerraldian aipatu zuen txostenaren gainekoa, zeina baita Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzari eginiko ikuskapenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuko lehendakariordeak 2013ko maiatzaren 8an eginiko agerraldian aipatu zuen txostenaren gainekoa, zeina baita Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzari eginiko ikuskapenari buruz (PES-74). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

2013ko apirilaren 4ko data duen eskariak Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuari eskatzen zitzaien honako alderdiei buruzko txosten bat egin zezan:

1. Nafarroako Aurrezki Kutxan nola aplikatu diren 7/1987 Foru Legea, 13/1987 Foru Dekretua, 244/1992 Foru Dekretua eta 5642/1992 Foru Dekretua.

2. Finantza arloko ikuskapenak egiteko eta eginkizunak betetzeko eskumena Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Bankuari dagozkio, entitate horri dagokionez.

Pdf formatuan erantsi ditugu bi txosten-eskaria, bai txostena bera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Nafarroako Gobernuko zerbitzu juridikoek Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzari eginiko ikuskapenari buruz eginiko txostenen gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuko zerbitzu juridikoek Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzari eginiko ikuskapenari buruz eginiko txostenen gainekoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuko zerbitzu juridikoek Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzari eginiko ikuskapenari buruz eginiko txostenari buruz (PES-75). Hauxe erantzun dio

Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Eskatutako txostenak pdf formatuan erantsi ditugu. Haiek egiteko arrazoia izan ziren eskariei dagokienez, adierazi beharra dago txosten zaharren kasuan eskariak ez daudela jasota; 2012ko abenduaren 12ko txostenari dagokionez, berriz, eskaria ahozkoa izan zen. Horrenbestez, 2013ko apirilaren 22ko txostena egiteko eskaria baizik ez da erantsi.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 10ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Nafarroako Kutzaren arte-ondarea Nafarroako herritarren zerbitzura egon dadila ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Kutzaren arte-ondarea Nafarroako herritarren zerbitzura egon dadila ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Kutzaren arte-ondarea Nafarroako herritarren zerbitzura egon dadila ziurtatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko zuzemenei buruz (PES-00080). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Planteatutako gaiei dagokienez, beste behin gogorarazi beharra dago Nafarroako Aurrezki Kutxa izaera pribatuko entitate bat dela, Nafarroako Gobernuarenaz besteko nortasun juridiko independentea duena, eta ez dagoela azken horri atxi-

kia ez inongo jabari-loturaren bidez ez inongo mendetasun hierarkikoren bidez. Haren izate pribatu eta independentea dela eta, negoziazioen bat egin behar izatekotan nafarrek haren ondare artistikoa osatzen duten obrak goza ahal izan ditzaten, aurrezki kutxa honi eman beharreko tratua ez da Nafarroako herritarrei ezagutzera emateko erakusteko moduko ondarea duen beste edozein entitateri eman beharreko tratuaz bestelakoa.

Hala eta guztiz ere, Kulturako, Turismoko eta Erakunde-harremanetarako kontseilari honek aginduta, Kultura Zuzendaritza Nagusia harremanetan jarri zen CAN Fundazioarekin joan den urtearen amaieran, haren ondare artistikoari eta agirien nahiz argazkien artxiboari buruz galdetzeko. CAN Fundazioak berak interesa erakutsi du bere arte-lanak zaintzeko toki egoki bat aurkitzeko. Kultura Zuzendaritza Nagusiak bere burua eskaini zuen honakoak zaindu eta erabiltzeko: arte-bilduma, ondare bibliografikoa, argazki-bilduma, fundazio-artxiboak eta bestelakoak. Halaber, adierazi zuen Foru Administrazioak interesa duela arte-bilduma gordailuan jasotzeko. Horretarako, izan ere, espazio egokia bilatuko litzateke, eta Fundazioa ardura-

tu beharko litzateke tokia egokitzeko lanez, beharrezkoa balitz.

CAN Fundazioko Batzorde Kudeatzaileko lehendakariak urtarrilean jakinarazi zuenez presako eta lehentasunezko izaeraz bildumaren balorazio ekonomikoa egiteari ekin behar zitzaiola, ete-nik geratu dira gaur arte ezarri diren lan-ildoak.

2013ko maiatzaren 31n Parlamentuan egindako lan-bileran, Nafarroako Aurrezki Kutxaren Batzorde Kudeatzaileak ezagutzera eman zuen Fundazioko arte-ondarea osatzen duten lanak behar bezala inbentariatuta daudela.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak berretsi egin du 2012ko abenduan egindako eskaintza.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainean. Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, abiadura handiko trenaren Castejón-Iruña zatiaren eraikuntzak Tafallako eta Nafarroako erdialdeko garapen ekonomiko eta sozialean duen eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, abiadura handiko trenaren Castejón-Iruña zatiaren eraikuntzak Tafallako eta Nafarroako erdialdeko garapen ekonomiko eta sozialean duen eraginari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazioa eskatu du abiadura handiko trenaren Castejón-Iruña zatiaren eraikuntzak Tafallako eta Nafarroa-

ko erdialdeko garapen ekonomiko eta sozialean duen eragin negatiboari buruz (PES-79-13). Hauxe da Sustapeneko kontseilariak eman dion informazioa:

Abiadura handiko linea eraikitzeko urtetan zehar zenbait azterlan eta proiektu egin dira, gaur egun proiektatuta dagoenera iristeko. Dokumentu horietan aztertzen da ea korridorea komenigarria den ala ez orokorrean eskualde osorako, ez herri jakin baterako.

Hala eta guztiz ere, prozesu osoan zehar ukitutako udalei kontsulta egin zaie eta aukera eman zaie, halaber, proiektuaren aurkako alegazioak aurkezteko. Bestalde, aukerarik egokiena hautatzeko irizpide anitzeko azterketa bat egiten da, non kontuan hartzen baita azpiegiturak nolako eragina duen toki desberdinetatik pasatzean.

Abiadura handiko linea hasiera batean soilik bidaiarien trafikorako planteatu zen, baina trafiko

mistoari begirako planteamendu berriak eragin positiboa izanen du Nafarroa osoko garapen ekonomiko eta sozialerako ?ez soilik Tafallarako eta erdialderako?, zeren eta berarekin abantaila batzuk ekarriko baitizkie Nafarroako enpresei, zeinek esportatzeko ahalmena handituko baitute.

Estatuak Nafarroan egiten duen inbertsioa da, eta nafarrentzako aukerak eta enplegua sortzen ditu, turismo gehiago erakarriko du, irudia hobetuko du, kokapena eta komunikazio-aukerak direla eta inbertsio-egile gehiago erakarriko ditu, eta Espainiako jarduera ekonomikoaren gune garrantzitsuenekiko irisgarritasuna hobetuko du.

Ondoren, egiten joan diren azterlanen laburpena eginen dugu. Azterlan horiek beren izapidetzea izan dute eta zegokionean informazio publikoko aldiak zabaldu dira, toki entitateek beren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

AUKEREI BURUZKO AZTERLANAK

Abiadura handiko trenbide linearen –Nafarroako Korridorea deitutakoa? ezarpena dela eta ?Madril-Bartzelona linearekin eta Euskadiko Trenbide Sare berriarekin konektatzeari begira sortu zen?, azterlan ugari egin dira 1980tik. Azterlan horien amaieran, bai azpiegituren plan zuzendarian (PDI 1993-2007), bai Europar Batasunaren Essen Akordioan eta 1995-2000 urteetarako trenbide azpiegituren planean sartu zen; izan ere, plan horren barrenean, abiadura handiko programan jasota dago.

Aurreko azterlanak analizatu, gaurkotu eta birplanteatzeko beharra honako faktore hauen ondorioz heldu da:

- PDlan soilik bidaiarien trafikorako linea gisa jasota egotea; aurreko azterlanetan, ordea, trafiko mistoko lineatzat hartzen zen, eta horrek malda handiagoak edukitzeko aukera ematen zion.

- Abiadura orduko 300-350 Km-taraino igotzea.

- Madril-Bartzelona-Muga linea aldatu izatea. Izan ere, ez da Soriatik joanen, baizik eta Jalón Ibarretik.

- Euskadiko trenbide sarearekin lotzea.

Arrazoi horiek direla eta, Trenbideko eta Errepideko Garraioen Zuzendaritza Nagusiak honakoa egitea sustatu zuen: “Nafarroako Abiadura Handiko Korridorearen Trazadurarako aukerei buruzko azterlana”, Sustapen Ministerioak 1996ko irailetik 1997ko azarora egindakoa.

Azterlan horretan, trenbide-irizpideak erabili ziren, orduko 350 Km-ko abiadura handiko linea

bati zegozkionak, kontuan hartuz soilik bidaiarientzako trafikorako ustiatuko zela.

Aukerei buruzko azterlan horretan, hiru tarte ezarri ziren:

- I. tarte: Madril-Zaragoza-Bartzelona-Frantziako Muga abiadura handiko linearekiko lotunetik Ezkirotz ingururaino.

- II. tarte: Ezkirotz ingurutik Zuasti ingururaino.

- III. tarte: Aurreko tartetik Euskadiko Trenbide Sare Berriarekiko (Euskal “Y”a) lotuneraino.

Aukeren azterlan horretatik abiatuta, kasuko informazio azterlanak idatzi ziren. Azterlan horiek Sustapeneko Ministerioak garatu behar ditu, zeren eta Nafarroak ez baitu haiek idazteko eskumenik:

INFORMAZIO AZTERLANAK

Aukeren azterlaneko I. tarteari buruz, bi informazio azterlan egin ziren:

- Abiadura Handiko Ipar-ekialdeko Trenbide Korridoreari buruzko informazio azterlana. Zaragoza-Castejón tarte, Azpiegituren eta Plangintzaren Estatu Idazkaritzaren 2007ko azaroaren 28ko Ebazpenaz onetsia.

Jarduketa hori Sustapeneko Ministerioaren 2000-2007 urteetarako garraio-azpiegituren planeko trenbideari buruzko kapituluko abiadura handiko programan sartuta dago, Ipar-ekialdeko Trenbide Korridorea deitutakoaren atal gisa.

Abiadura handiko programa horrek trenbidearen arloko helburu gisa bilatzen du probintziako hiriburu guztiak penintsulako erdigunetik 4 ordura egotea. Ipar-ekialdeko korridorean, zehazki, helburua da Logroñora 2 ordu eta 10 minutu egotea eta Iruñera 2 ordu eta 15 minutu egotea.

Abiadura handiko trazaduraren azterlan horretan, trenbidearen zatirik handiena egiten zen abiadura handiko trenbidea egungo trenbideari atxikiz, betiere saihebidetara puntual batzuekin; Nafarroako kasuan, Cortes, Ribaforada eta Tuterakoa.

Informazio azterlan hori Tuterarainoko zatiari dagokionez onetsi zen. Beste informazio azterlan baterako uzten zen abiadura handiko trenbideak Tuteratik igarotzean izanen zuen trazadura. Hartara, gaur egun, Sustapeneko Ministerioa abiadura handiko Kantauri-Mediterraneo korridorearen informazio azterlan osagarria idazten ari da. Tarte: Zaragoza-Castejón. Azpi-tarte: Tuter-Castejón. Azterlan hori hasierako informazio azterlanaren informazio publikoko fasean zehar jasotako alegazioen ondorioz egin zen. Fase hori 2003an izan zen, eta Tuteratik kanpoko trazadurarako

beste aukera bat aztertzea bilatu zen.

- Abiadura Handiko Ipar-ekialdeko Trenbide Korridoreari buruzko informazio azterlana. Castejón-Iruñerria tartea. (2004ko uztailaren 21ean onetsia).

Azterlan hau, aurrekoa bezala, 2000-2007 urteetarako azpiegitura planaren barruan garatu zen. Plan horren helburu nagusia da trenbide garraio moderno eta lehiakor bihurtzea, eta horregatik diseinatu zen soilik bidaiarientzako garraio gisa.

4 aukera aztertu ziren, eta 3A, 3B 3C eta 3D, eta 3. aukera onetsi zen.

Ingurumeneko Idazkaritza Nagusiaren 2004ko apirilaren 16ko Ebazpenaren bidez “Ipar-ekialdeko abiadura handiko korridorea. Castejón-Iruñerria tartea” izenekoaren informazio azterlanari buruzko ingurumen eraginari buruzko deklarazioa egin zen.

Ebazpen hori indarrean dagoela berretsi da Landagune eta Itsas Inguruetakoko Ministerioko Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2010eko abenduaren 14ko txosten baten bitartez, non esaten baita “ez dela funtsezko aldaketarik izan “Ipar-ekialdeko abiadura handiko korridorea. Castejón-Iruñerria tartea” delakoaren informazio azterlanari buruzko ingurumen eraginaren gaineko ebaluazioa egiteko oinarri gisa baliatu ziren funtsezko elementuetan.

II. tartean, informazio azterlan bat egin zen:

- “Iruñerriko trenbide sare berrirako proiektuaren informazio azterlana: trenbidearen kiribilgunea kentzea eta geltoki intermodal berria egitea”. (2004ko uztailaren 7an onetsi zen).

Informazio azterlan hori idazteko, 1999ko uztailaren 2an hitzarmen bat sinatu zuten Sustapeneko Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateak.

Informazio azterlan hori orduko 350 Km-ko abiadurarako egin zen, nahiz eta jada esaten zen abiadura oso mugatuta zegoela azterlaneko tartea hiri-ingurukoa izateak dakartzan trazadura-baldintzapenen ondorioz eta soilik bidaiarientzako trazadura izatearen ondorioz. 6 aukera aztertu ziren eta haietatik 4.a onetsi zen azkenean.

Kutsaduraren eta Klima Aldaketaren Prebentzio-orako Idazkaritza Nagusiaren 2004ko ekainaren 1eko Ebazpenaren bidez, Sustapeneko Ministerioaren Trenbide Zuzendaritza Nagusiaren “Iruñerriko trenbide sare berriaren proiektua: trenbidearen kiribilgunea kentzea eta geltoki intermodal berria egitea” informazio azterlanari buruzko ingurumen eraginaren deklarazioa egin zen.

Ebazpen hori indarrean dagoela berretsi da Landagune eta Itsas Inguruetakoko Ministerioko Kalitatearen eta Ingurumen Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren 2010eko azaroaren 26ko txosten baten bitartez, non esaten baita “ez dela funtsezko aldaketarik izan “Iruñerriko trenbide sare berriaren proiektua: trenbidearen kiribilgunea kentzea eta geltoki intermodal berria egitea” delakoaren informazio azterlanari buruzko ingurumen eraginaren gaineko ebaluazioa egiteko oinarri gisa baliatu ziren funtsezko elementuetan.

- III. tartean, (euskal Yarekiko lotunea), Sustapeneko Ministerioa dagokion informazio azterlana idazten ari da (2010eko urrian adjudikatu zen).

Informazio azterlanetatik abiatuta, kasuko erakuntza proiektuak garatzen dira. Orokorrean, informazio azterlan batek hartzen duen tartea zatitu egiten da, eta informazio-azterlan baten barrenean eraikuntza proiektu bat baino gehiago egiten dira.

Behin Ministroen Kontseiluaren 2005eko uztailaren 15ean informazio azterlanak onetsi ondoren, azpiegituren eta garraioaren plan estrategikoa onetsi zen, non finkatzen baitira 2005-2020 urteetako horizontean azpiegiturretan eta garraioetan izanen diren jarduketa-jarraibide oinarritzakoak. Jarduketa horien barruan, aurreikusten da aldi horretan eraikitze prozesuan zeuden prestazio handiko ardatzak amaitzea eta sare konbentzionala hobetzea, UIC zabalera hartzeko pixkanaka eraldatzearen bidetik.

Castejón-Iruñerria linea Europako Sarearekin operagarria den trafikoko mistoko Espainiako trenbide sarearen barruan dago. Soilik bidaiarientzako trafikokoaren hasierako planteamendua aldatu zen, planteamendu horrexekin egin baitziren erreferentziako informazio azterlanak. Hartara, hasiera batean aintzat hartutako trazaduren altxaeraren definizio geometrikoa aldatu egiten da, lineako trafikokoaren izaera aldatzearekin batera. Horrenbestez, gehieneko sestra 15 milarenera mugatzen da (hasieran 25 milarenekoa zen). Trenbide instalazioak, halaber, egokitu egin behar dira, salgaien multzoak hartzeko moduko zabalera izenen dutela bermatzeko, zeren eta zirkulazioak direla-eta aintzat hartu beharreko gehieneko luzera 400 m-ra (bidaiarien garraioan) eta 750 m-ra igo baita (salgaien garraioan).

Horrenbestez, informazio azterlanak garatu beharko lituzketen proiektuek trafikoko mistoa jaso beharko lukete. Hori dela eta, ibilbide-tarteetarako hartu diren konponbideak aldatu egin behar dira, nagusiki altxaerari dagokionez. Horrek berarekin ekarriko du orokorrean tunel-tarte gehiago egin

behar izatea eta hasierako konponbideak garestitzea.

ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak izenpetutako protokolo eta hitzarmenetan ezarritakoaren arabera, berari dagokio Castejón eta Ezkirotz arteko plataformako proiektuak egitea:

- Castejón-Alesbes
- Alesbes-Erriberri
- Erriberri-Tafalla
- Tafalla-Artederreta
- Artederreta-Ezkirotz.

BESTE AZTERLAN BATZUK

Ministroen Kontseiluak 2005eko uztailaren 15ean onetsitako azpiegituren eta garraioaren plan estrategikoan, azpiegituren eta garraioaren arloko jarduketarako oinarritzko jarraibideak ezartzen dira, 2005-2020 horizonterako.

Jarduketa horien barruan sartzan da eraikitzen ari diren prestazio handiko ardatzak epe horretan amaitzea eta sare konbentzionala hobetzea, UIC zabalerarako pixkanaka eraldatzearen bidetik.

Castejón-Iruñerria linea Europako Sarearekin operagarria den trafiko mistoko Espainiako trenbide sarearen barruan dago. Soilik bidaiarientzako trafikoaren hasierako planteamendua aldatu zen.

Informazio azterlanak onetsi zirenetik gertatu den beste aldaketa bat da geltoki intermodal bat egitetik trenbiderako geltoki bat egitera aldatu dela, zeren eta Iruñean autobus geltoki berria egin baitzen.

Aipatutako aukerei buruzko azterlanez eta arestian aipatutako informazio azterlanez gainera, honako beste azterlan hauek egin ziren:

- Abiadura Handiko Ipar-ekialdeko Trenbide Korridorarako proiektuari buruzko informazio azterlana. Tarteak: Castejón-Logroño. 2002ko iraila.

- Kantauri-Mediterranea prestazio handiko trenbide-korridoreari buruzko azterlan funtzionala. 2007ko martxoa.

- Nafarroan abiadura handiko sarearen ezarpenaren eragin ekonomiko, sozial eta ingurumenekoari buruzko azterlana, bai pertsonen, bai salgaien garraioari dagokionez. 2010ean egin zen.

- Landabengo industrialdeko trenbide sarearen erreforma (Iruña). Nafarroako Volkswagen enpresaren proposamenari buruzko laburpena.

Getinsa enpresak 2010ean dokumentu bat idatzi zuen Castejón eta Iruña arteko trenbide sarean barna zirkulatuko zuen trafikoa kalkulatzeko aldera, bai Castejón-Iruñerria trafiko mistoko etorkizuneko trenbide lineatik, bai zerbitzuan diharduen egungo linea konbentzionalatik.

Ingurumen eraginak informazio azterlan bakoitzaren ingurumen eragineko azterlanean jasotzen dira, eta irizpide anitzeko analisi bat egiten da ikuspegi ekonomikotik, funtzionalatik, lurraldearen arlokoetik eta ingurumenekotik konponbiderik egokiena aurkitzeko. Horixe da azkenean onesten dena eta eraikuntza-proiektuen mailan garatzen dena.

2011ko martxoan, Agencia Navarra del Transporte y la Logística (ANL) azterlan bat amaitu zuen, non aztertzen baitziren nazioarteko zabaleradun trenbidea iristek Nafarroako salgaien garraioan izanen zituen eragin positiboak.

Maiorga jaunak aipatzen dituen "eragin negatiboak" dagokienez, halakorik ez dago, zeren eta ingurumen eraginaren deklarazioarekin konponbidea ematen baitzaie gerta litezkeen eraginei. Eragin ekonomikoak dagokienez, berriz, ez dira argiak, ez obrak egiten diren bitartean ?egindako inbertsioa dela eta?, ez epe luzeagoan ere, xurga ditzakeen salgai-garraioaren kuotaren eta korridorean zehar ezar daitezkeen enpresa berrien ondorioz, Europako zuzeneko komunikazioa edukiko baitute.

Iruñean, 2013ko ekainaren 14an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako zerbitziburuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako zerbitziburuei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario ez diren zerbitziburuei buruz (PES 81/2013). Hauxe erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak:

1. Ba al da Nafarroako Gobernuaren egituran, edozein departamentutan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario ez den zerbitzibururik?

Gaur egun, bi zerbitzibururu badaude Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario ez direnak; izan ere, beste administrazio batzuetako funtzionarioak dira, bi kasuetan Nafarroako toki entitateetakoak, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxiki zaizkio.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako funtzionario ez den zerbitzibururen batek parte hartu al du, parte hartzen ari al da edota aurreikusita al dago bere parte-hartzea langileak hautatzeko probaren batean –funtzionarioak, lan kontratadun finkoak edota aldi baterakoak–, oposizioako epaimahairen bateko kide gisa?

Horri dagokionez, bi gai hartu behar dira kontuan:

– Lehenbizi, Nafarroako Gobernuak zerbitzibururu izenda dezakeela beste administrazio bateko funtzionarioa izan eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxikita dagoen pertsona bat, jada 1983tik, eta behin baino gehiagotan baliatu izan dela aukera horretaz.

– Bigarrenik, ez dagoela, eta 1983tik sekula ez dela egon, inolako lege- edo arau-eragozpenik langile horiek oposizio bateko epaimahaian egoteko.

Kasuen eta daten azterketa xehean sartu gabe, galderan ez baitira zehazten, oso litekeena da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxikita dagoen zerbitzibururen batek noizbait oposizioren bateko epaimahairen batean parte hartu izatea, baina ez da erraz gertatzen kasu hain orokor horretarako erantzuna aurkitzea.

Iruñean, 2013ko ekainaren 17an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, jakitekoa zer neurri hartu dituen edo hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak betetzeko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa zer neurri hartu dituen edo hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak betetzeko, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 29ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko zer neurri hartu dituen edo hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen hirugarren eta laugarren

xedapen gehigarria betetzeko (PES-00056 eta PES-00057). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak:

Nafarroako Merkataritzari buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, ez dago jasota ez inongo toki entitatek, ez Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak kezkarik adierazi dutenik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen aldaketa dela eta; hain zuzen, hirugarren eta laugarren xedapen horietan aurreikusita dago aldaketa hori. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ez du, momentuz, inongo neurririk hartu horri dagokionez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainean

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Gizarteratze Errentari buruzko Foru Lege berria indarrean sartu aurretik eskatutako gizarteratze errentak ukatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Gizarteratze Errentari buruzko Foru Lege berria indarrean sartu aurretik eskatutako gizarteratze errentak ukatzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 28ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Gizarteratze Errentari buruzko Foru Lege berria indarrean sartu aurretik eskatutako gizarteratze errentak ukatzeari buruz (8-13/PES-00077). Hauxe erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

1. Aurreko oinarrizko errenta eskatu eta Gizarteratze Errentaren Foru Lege berria indarrean sartzaren ondorioz ukatu zaien zenbat pertsonak aurkeztu dute errekurtsioa?

Oinarrizko errenta eta gizarteratze errenta direla-eta, 2012ko urtarrilaren 1etik gaur arte, 89 kasutan gertatu da epaitegiak erreklamatzeko espedienteak dituzten administrazioarekiko auzi-errekurtsoak. 89 espediente kontabilizatu dira.

2. Gobernuaren aurreikuspenen arabera, zer kostu erator daitezke aipatu epaitik (bai kostuen ordainketatik bai ebazpen judizialaren mamitik)?

Aipatutako epaia dela-eta, 407,82 euro ordaindu behar zaizkio eskatzaileari; kostu judizialen zenbatekoari dagokionez, epaitegiak oraindik ere ez ditu jakinarazi.

3. Gobernuak aurreikusi al du bere aurkako zenbat epai izan daitezkeen, ikusita aurkeztutako errekurtsoen kopurua, eta horrek zenbateko kostua ekarri ahal dion Administrazioari?

Gaur arte, 16 epai jaso dira ?10 baiestekoak eta 6 ezestekoak?; hori dela eta, goiz da aurreikuspen fidagarri bat egiteko, zeren eta epai guztiak ez baitira eskatzaileen aldekoak izaten ari.

4. Zenbait pertsonak ez zuten errekurtsorik aurkeztu, baina, epaia ikusirik, oinarrizko errenta kobratzeko eskubidea izango zuket. Gobernuak ba al du asmorik kasu horiek berrikusteko?

Garai berean errenta ukatu zitzaizen gainerako familiei dagokienez, departamentuko zerbitzu juridikoak izan diren epaien norainokoa eta aplikazioa ari dira aztertzen. Balorazio horrekin eta behar den txostenarekin, Nafarroako herritarrei aitortutako eskubideak betetzeko bidezko diren ekintzak baloratu ditugu.

Berriz ere nabarmentzen dugu gaur arte jasotako epai guztiak ez direla eskatzaileen aldekoak izan. Hori dela eta, zuhurtasunez jokatu behar dugu edozein jarduketa baloratzeko garaian.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 18an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Ultzama, Malerreka, Baztan, Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Bortzirietako oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateek Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013rako ezartzen dituen Foru Aginduaren aurka aurkeztutako errekurtsoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Ultzama, Malerreka, Baztan, Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Bortzirietako oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateek Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013rako ezartzen dituen Foru Aginduaren aurka aurkeztutako errekurtsoari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 3ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ultzama, Malerreka, Baztan, Altsasu, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Leitza eta Bortzirietako oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateek Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013rako ezartzen dituen Foru Aginduaren aurka aurkeztutako errekurtsoari buruz (8/13 PES 00085). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

1.- Zer jarrera hartuko du Nafarroako Gobernuak?

Aipatutako oinarrizko gizarte zerbitzuen mankomunitateek alde aurreko errekerimendua aurkeztu dute, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998

Legeko 44. artikuluan ezarritakoa, honako eskari hauekin:

1. Bederatzigarren oinarriko 4. atalean aipatzen diren mugak deuseztatzea.

2. Subsidiarioki, aipatutako oinarrian jasotzen den muga 30 egunekoa izan dadila 1.000 biztanle bakoitzeko, edo eskari-handitzeari sabai bat ezartzea, aurreko urteko eskariaren % 10ekoa.

Gizarte Politiketako Departamentuak egokitzen du ez baiestea gisa horretako mugak jartzeko eskaria, ez eta, subsidiarioki, hura 1.000 biztanle bakoitzeko 30 hilabeteko mugara igotzea ere.

2.- Errekurtsoa onartzen ez badu, zer neurri hartuko ditu horrek aipatu eskualdeetarako izanen lituzkeen ondorio kaltegarriak saihesteko?

Diru-laguntzei buruzko Foru Legeak gastu publikoan efizientzia izatearen printzipioa jasotzen du, hau da, laguntzak eta diru-laguntzak kostu txikiena izan eta errendimendu handiena aterako duenari ematekoa; ezin da ahaztu printzipio hori ekitateak modulatu behar duela, are gehiago gizarte bazterketaren aurkako borrokarekin lotutako programa bat denean. Halaber, aurrez honako printzipio hauek jasotzen ditu: publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna, bazterketa eza eta kontrola.

Horri dagokionez, bederatzigarren oinarriak, lehenengo, planteatzen du eskura dauden baliabiak efizientziaz esleitzea.

Bestalde, populazioaren adierazlea adierazle guztiz garden eta objektiboa da, eta entitate guztien eskura dago Estatistikako Institutu Nazionala-

ren eta Nafarroako Estatistika Institutuaren bitartez.

Azkenik, nabarmendu nahi dut bere garaian jo zela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako herritar guztien berdintasunaren alde egin behar zuela, bazterketa prozesuan dauden pertsona guztien arteko aukera-berdintasuna bermatuz, edozein dela ere haien bizitokia.

Langabeziari edo oinarritzko eskualde bakoitzeko biztanleriaren araberrako gizarteratze-errentaren jasotzaileen kopuruari lotutako adierazleak erabili izan balira, eskualde horiek guztiak kalteturik aterako ziren neurri handiagoan, zeren eta batez bestekoaren azpitik baitaude, bai gizarteratze errentaren jasotzaileen kopuruari (beren biztanleriaren arabera) bai langabetuen portzentajeari dagokionez.

Azkenik ezer ere ez dago pentsarazten duenik herri batean gizarte enplegu babestua izateak eraginkortasun txikiagoa duela errekurtsoa aurkeztutako entitateetan izateak baino; eta hori are nabarmenagoa da, aurrez adierazi bezala, langabetuen eta gizarte errentaren jasotzaileen kopurua eskualde horietan txikiagoa denean gainerako entitateetan baino. Hori dela eta, eraginkorragoa izanen litzateke, nolana ere, proportzioan funts gehiago ematea errekurtsoak aurkeztu ez dituzten entitateei.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 19an.

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Mendiei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1192 Foru Dekretuko 89 eta 90. artikulua betetzeko hartutako neurri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Mendiei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1192 Foru Dekretuko 89 eta 90. artikulua betetzeko hartutako neurri buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 3ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Mendiei buruzko Erregelamendua dela eta (8-13-/PES-00082). Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak:

1.- Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak azken urteotan, Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea garatzen duen eta Mendiei buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 17ko 59/1992 Foru Dekretuko 89 eta 90. artikulua betetzeko?

Azken urteetan departamentu honek baimendu dituen onddo barrutien zerrenda erantsi dugu.

PERRETXIKOEN, ONDDOEN ETA BOILURRAREN APROBETXAMENDURAKO BARRUTIEN ZERRENDA

Onespen data	NAOko argitalpen eguna	Entitatea
07.02.1994	02.03.1994 26. zk.	Zaraitzu Ibarreko Batzarraren Irati eta Erremendia mendiak
16.05.1994	06.06.1994 67. zk.	Uztarrozeko Udala
16.05.1994	06.06.1994 67. zk.	Erronkaribarko Batzar Nagusia
26.06.1996		Orreagako Kolegio Eliza.
20.02.1995	07.04.1995 45. zk.	Biotzariko Kontzejua
18.09.1995	09.10.1995	Aurizko Udala
18.11.1997	19.01.1998 8. zk.	Luzaideko Udala
19.09.2000	28.05.2001 65. zk.	Aezkoako Hiriberriko Udala
14.03.2003	14.05.2003 60. zk.	Gazteluberriko Udala
29.06.2007 372/2007 F.A.	08.08.2007 97. zk.	Ultzamako Udala
0165/2008 21.01.08	08.02.2008 18. zk.	Torralba del Rioko Udala (boilurra)
190/2013 Ebazpena 2013ko martxoaren 5a	29.04.2013 80. zk.	Garraldako Udala
296/2013 Ebazpena 2013ko maiatzaren 7koa	7.05.2013 85. zk.	Zaraitzuko Batzar Nagusia Irati, Zabaleta (Lizardoia Erreserba Integrala kenduta) eta Erremendia.

Onddo barrutietarako seinalizazio eredu:
Foru aginduaren onespen data: 1994-04-25

NAOn argitaratzea: 1994-05-23ko 61. alea.

2.- Nafarroako Gobernuak gauzatu al du aipatu foru dekretuaren 89. artikuluko b) puntua? Hala bada, foru agindu desberdinen kopiak eskuratu nahiko nituzke.

Ez da 89. artikuluko aipatutako b atala garatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, BEZa dela-eta, 2013ko apirilean lortuta zegoen diru-bilketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, BEZa dela-eta, 2013ko apirilean lortuta zegoen diru-bilketari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 3ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du BEZa dela-eta 2013ko apirilean lortuta zegoen buruz (PES-83). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Apirilaren 30eko BEZaren diru-bilketa likidoa, 2012koa eta 2013koa metatuta, hauxe da:

	2013. urtea	2012. urtea	2013/2012 urte arteko aldaketa metatua
Diru-bilketa	440.154.785	527.954.652	-16,63%
Itzulketak	316.684.276	179.971.042	75,97%

Apirilaren 30ean metatutako BEZarengatik doikuntza urteko lehenengo hiruhilekoari dagokiona da; hauxe, hain zuzen ere:

	2013. urtea	2012. urtea	2013/2012 urte arteko aldaketa metatua
Aurreko urteko doikuntzaren erregularizatzea	-166.145.913	-116.670.939	42,4%
Urtarrila-martxoa behin-behineko doikuntza	143.710.484	61.222.586	134,7%
DOIKUNTZA, GUZTIRA	-22.435.428	-55.448.353	-59,5%

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko ekainaren 24an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, udako igerileku berriak finantzatzeko, Tafallako Udalari diru-laguntza bat emateko hartu beharreko erabakiaren zirriborroari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, udako igerileku berriak finantzatzeko, Tafallako Udalari diru-laguntza bat emateko hartu beharreko erabakiaren zirriborroari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 3ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallako Kirol Hiriko kanpoko igerilekuekin lotutako zenbait gairi buruz (8/13 PES 00084). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

1.- Dokumentu hori Nafarroako Gobernuaren agiri ofizial bat al da, lanekoa soilik bada ere?

1.- Parlamentu-talde horrek egindako aurreko galderaren erantzunean (PES-61) jada adierazi genuen bezala, Nafarroako Gobernuak 2013ko maiatzaren 8an hartu zuen erabaki hori, eta dokumentu horrek Gobernuko Idazkaritzaren eta Araugintzaren zerbitzuburuak emandako jakinarazpena errepikatzen du.

2.- Kasua bada, zergatik ez zen onetsi diru-laguntza hori ematea 2013ko maiatzaren 8ko gobernu-bileran, dokumentuan ageri den moduan?

2.- Ez da kasua, zeren eta diru-laguntza ematea Gobernuaren maiatzaren 8ko bilkuran onetsi baitzen.

3.- Zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak, egutegiaren arabera zehaztuta, diru-laguntza hori emateko?

4.- Ba al da konpromiso zehatzik gai horren inguruan Nafarroako Gobernuaren eta Tafallako Udalaren artean?

3 eta 4.- 2013ko maiatzaren 21ean, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak 324/2013 Ebazpena onetsi zuen. Haren bidez, izan ere, oinarri arautzaileak onetsi ziren eta 150.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion Tafallako Udalari. Oinarri horietan, aurreko erantzunean adierazi genuen bezala, ezartzen da ezen behin obra eginda, beharrezkoa izanzen dela haren justifikazioa aurkeztea, betiere 2013ko urriaren 30a baino lehen. Diru-laguntza ematen duen organoak behar den egiaztapena egin ondoren ordainduko da diru-laguntza.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 25ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Iñigo Alli Martínez

Galdera, Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko ekainaren 10eko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluarekin lotutako gai batzuei buruz (813/PES-00094). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak orain arte eginiko bilerak, bertaratu diren pertsonak eta aztertutako gaiak.

Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua 238/2007 Foru Dekretuaren bidez sortu zen. Haren eratze bilkura 2008ko azaroaren 14an egin zen.

Parte-hartzaileak:

– María Isabel Garcia Malo andrea. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko kontseilaria.

– Loren Albeniz Ascorbe andrea. Familia, Haur eta Kontsumoko zuzendari nagusia.

– Blanca Berruete Cilveti andrea. Kontsumo Zerbitzuko zuzendaria.

– Cristina Sota Pernaut andrea. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

– Manuel Arizcun Biurrun jauna. "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Susana Arizcun Biurrun andrea. "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Marisa Larramendi Mugueta andrea. "Santa María la Real" Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarte.

– M^a Isabel Martinez Eder andrea. "Plaza del Castillo" Komunikabideen Erabiltzaileen, Teleikuseen eta Irrati-entzuleen herritarren elkarte.

– Marta Vera Janín andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– José Manuel Ayesa Dianda jauna. CEN

– Javier Martinena Bergasa jauna. CEN

– Teresa Hualde Manso andrea. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeko burua.

– M^a José Ezkurra Legazkue andrea. Kontsumo Zerbitzuko APTa (arlotu juridikoa). Kontseiluko idazkaria.

Gai zerrenda:

1. Ongi etorria ematea bertaratuei eta kontseilariaren agurra.

2. Nafarroako Kontsumo Kontseiluko kideak izendatzea eta kontseilua bera eratzea.

3. Kontseiluaren helburuen eta funtzionamendu-arauen aipamena.

4. Nafarroako Kontsumo Zerbitzuaren jarduerari buruzko deskribapena.

5. Etorkizuneko jarduketan proposamena.

6. Eskariak eta galderak.

BIGARREN BILKURA. 2009ko ekainaren 2an egina.

Parte-hartzaileak:

– María Isabel Garcia Malo andrea. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko kontseilaria.

– Loren Albeniz Ascorbe andrea. Familia, Haur eta Kontsumoko zuzendari nagusia.

– Blanca Berruete Cilveti andrea. Kontsumo Zerbitzuko zuzendaria.

– Cristina Sota Pernaut andrea. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

– Manuel Arizcun Biurrun jauna. "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Francisco Javier Torres Zalba jauna. "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Marisa Larramendi Mugueta andrea. "Santa María la Real" Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarte.

– M^a Isabel Martinez Eder andrea. "Plaza del Castillo" Komunikabideen Erabiltzaileen, Teleikuseen eta Irrati-entzuleen herritarren elkarte.

– Marta Vera Janín andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– José Manuel Ayesa Dianda jauna. CEN

– Javier Martinena Bergasa jauna. CEN

– Teresa Hualde Manso andrea. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeko burua.

– M^a José Ezkurra Legazkue andrea. Kontsumo Zerbitzuko APTa (arlotu juridikoa). Kontseiluko idazkaria.

Gai zerrenda:

Ongi etorria ematea bertaratuei eta kontseilariaren agurra.

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkar-teak azaroaren 5eko 237/2007 eta 238/2007 Foru Dekretuak aldatzeari buruz eginiko proposamenak aztertu eta baloratzea. Hartu beharreko erabakiak.

3. Kontsumo Zerbitzuaren jardueren berri ematea.

4. Nafarroako kontsumoari buruzko urteko txostenaren egitea. Onespina eta lanerako metodologia.

5. Eskariak eta galderak.

HIRUGARREN BILKURA. 2010eko otsailaren 3an egina.

Parte-hartzaileak:

– María Isabel Garcia Malo andrea. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko kontseilaria.

– Loren Albeniz Ascorbe andrea. Familia, Haur eta Kontsumoko zuzendari nagusia.

– Blanca Berruete Cilveti andrea. Kontsumo Zerbitzuko zuzendaria.

– Manuel Arizcun Biurrin jauna. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkar-tea.

– Susana Arizcun Biurrin andrea. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkar-tea.

– Marisa Larramendi Mugueta andrea. “Santa María la Real” Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkar-tea.

– Margarita Andrés Fernández andrea. Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkar-tea.

– Marta Vera Janín andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– José Manuel Ayesa Dianda jauna. CEN

– Javier Martinena Bergasa jauna. CEN

– Teresa Hualde Manso andrea. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeko burua.

– M^a Alba Fernandez García andrea. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko APTa (arlotu juridikoa). Kontseiluko idazkaria.

Gai zerrenda:

Ongi etorria ematea bertaratuei eta kontseilariaren agurra.

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2. Nafarroako Kontsumo Kontseiluari informazioa “Plaza del Castillo” Komunikabideen Erabiltzaileen, Teleikusleen eta Irrati-entzuleen Herritarren Elkar-teko buruak igorritako komunikazioari buruz.

3. Espainian dauden kontsumoaren eta kontsumitzaileen arloko kontseiluen konparazio-azterlanari buruzko informazioa.

4. Familia, Haur eta Kontsumoko zuzendari nagusiak proposatuta, “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkar-teak egindako azterlanari buruz informazioa eta azterlan hori aurkeztea: “Nafarroako familien krisiari eta gehiegizko zorpetzeari buruzko azterlana”.

5. Etxebizitzaren salerosketan eta errentamenduan eman beharreko informazioari dagokionez kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa arautzeko foru dekretuaren zirriborroaren aurkezpena.

6. Eskariak eta galderak.

LAUGARREN BILKURA. 2010eko ekainaren 22an egina.

Parte-hartzaileak

– María Isabel Garcia Malo andrea. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko kontseilaria.

– Loren Albeniz Ascorbe andrea. Familia, Haur eta Kontsumoko zuzendari nagusia.

– Blanca Berruete Cilveti andrea. Kontsumo Zerbitzuko zuzendaria.

– Manuel Arizcun Biurrin jauna. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkar-tea.

– Susana Arizcun Biurrin andrea. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkar-tea.

– Marisa Larramendi Mugueta andrea. “Santa María la Real” Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkar-tea.

– Margarita Andrés Fernández andrea. Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkar-tea.

– Marta Vera Janín andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– Javier Iradiel Ibañez jauna. CEN

– José Manuel Olivar de Julian jauna. CEN

– M^a Alba Fernandez García andrea. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko APTa (arlotu juridikoa). Kontseiluko idazkaria.

Gai zerrenda:

Ongi etorria ematea bertaratuei eta kontseilariaren agurra.

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2. Araudiaren izapidetzearen egoerari buruz informatzea.

3. Jarduerari buruz informatzea.

4. Eskariak eta galderak.

BOSGARREN BILKURA. 2011ko maiatzaren 27an egina.

Parte-hartzaileak:

– Loren Albeniz Ascorbe andrea. Familia, Haur eta Kontsumoko zuzendari nagusia.

– Blanca Berruete Cilveti andrea. Kontsumo Zerbitzuko zuzendaria.

– Manuel Arizcun Biurrin jauna. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Susana Arizcun Biurrin andrea. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Marisa Larramendi Mugueta andrea. “Santa María la Real” Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarte.

– Concepción Bozal Yanguas andrea. Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkarte.

– Marta Vera Janín andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– Javier Iradiel Ibañez jauna. CEN

– Alberto Zoco Huarte jauna. CEN

– M^a José Ezkurra Legazkue andrea. Kontsumo Zerbitzuko APTa (arlotu juridikoa). Kontseiluko idazkaria.

Gai zerrenda:

Ongi etorria ematea bertaratuei.

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.

2. Nafarroako Kontsumo Kontseiluari informatzea araudiaren izapidetzearen egoerari buruz.

3. Jarduerari buruz informatzea.

4. Eskariak eta galderak.

SEIGARREN BILKURA. 2011ko abenduaren 19an egina.

Parte-hartzaileak:

– Elena Torres Miranda andrea. Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilaria.

– José Javier Monzón Romé jauna. Gizarte Politikako eta Kontsumoko zuzendari nagusia.

– César López Dios jauna. Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuko zuzendaria.

– Manuel Arizcun Biurrin jauna. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Susana Arizcun Biurrin andrea. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– M^a Victoria Gonzalez Toda andrea. “Santa María la Real” Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarte.

– Concepción Bozal Yanguas andrea. Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkarte.

– Amaya Erro Garcés andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– Javier Iradiel Ibañez jauna. CEN

– Alberto Zoco Huarte jauna. CEN

– Teresa Hualde Manso andrea. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeko burua.

– M^a José Ezkurra Legazkue andrea. Kontsumo Zerbitzuko APTa (arlotu juridikoa). Kontseiluko idazkaria.

Gai zerrenda:

1. Nafarroako Kontsumo Kontseiluko buruaren aurkezpena eta agurra.

2. Aurreko bilerako akta irakurri eta, bidezkoa bada, onestea.

3. Etxebizitzaren salerosketan eta errentamenduan eman beharreko informazioari dagokionez kontsumitzaile eta erabiltzaileen babes arautzeko foru dekretuaren proiektuari buruzko informazioa, eta kasua bada, bozketa egitea.

4. Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuen jardueren berri ematea.

5. 2012ko jardueraren plangintza. Nafarroako Kontsumo Kontseiluko kideen proposamenak.

6. “Irache” Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarteak eskatutako informazioa.

7. Eskariak eta galderak.

ZAZPIGARREN BILKURA. 2012ko martxoaren 12an egina.

Parte-hartzaileak:

– Elena Torres Miranda andrea. Gizarte Politika, Bertintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilaria.

– José Javier Monzón Romé jauna. Gizarte Politikako eta Kontsumoko zuzendari nagusia.

– César López Dios jauna. Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuko zuzendaria.

– Cristina Sota Pernaut andrea. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

– Manuel Arizcun Biurrin jauna. "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Susana Arizcun Biurrin andrea. "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– M^a Victoria Gonzalez Toda andrea. "Santa María la Real" Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarte.

– Concepción Bozal Yanguas andrea. Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkarte.

– Amaya Erro Garcés andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– Teresa Nagore Ferrer andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– Javier Martinena Bergasa jauna. CEN

– Javier Iradiel Ibañez jauna. CEN

– Teresa Hualde Manso andrea. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeko burua.

– M^a José Ezkurra Legazkue andrea. Kontsumo Zerbitzuko APTa (arlotu juridikoa). Kontseiluko idazkaria.

Gai zerrenda:

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta, bidezkoa bada, onestea.

2. Etxebizitzen salerosketan eta errentamenduan eman beharreko informazioari dagokionez kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa arautzeko foru dekretuaren proiektuari buruzko informazioa ematea eta bozketa egitea.

3. Ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz informatzea. Horren ondorioz, Nafarroako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartearen Erregistroa eta Nafarroako Kontsumo Kontseilua sortzen dituzten azaroaren 5eko 237/2007 eta 238/2007 foru dekretuak aldatzeari buruz informatzea.

4. Nafarroako Gobernu Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak 2011n izan duen jardueraren balantzea.

5. 2011ko diru-laguntzen likidazioa.

6. 2012rako diru-laguntzetarako deialdia.

7. 2012rako helburuak.

8. Nafarroako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartearen Erregistroa sistematizatzea.

9. Eskariak eta galderak.

ZORTZIGARREN BILKURA. 2012ko ekainaren 26an egina.

Parte-hartzaileak.

– Iñigo Alli Martínez jauna. Gizarte Politiketako Departamentuko kontseilaria.

– César López Dios jauna. Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuko zuzendaria.

– Amaya Ekisoain Gorri andrea. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

– Manuel Arizcun Biurrin jauna. "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– Susana Arizcun Biurrin andrea. "Irache" Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarte.

– M^a Victoria Gonzalez Toda andrea. "Santa María la Real" Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkarte.

– Amaya Erro Garcés andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

– Javier Martinena Bergasa jauna. CEN

– José Manuel Olivar de Julian jauna. CEN

– Teresa Hualde Manso andrea. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeko burua.

– Carlos Agundez Salinas jauna. Kontsumo Zerbitzuko APTa (arlotu juridikoa). Kontseiluko idazkaria.

Gai zerrenda:

Kontseilariaren agurra.

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta, bidezkoa bada, onestea.

2. Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuaren jardueren berri ematea.

3. 2013ko jardueraren plangintza. Kontseiluko kideen proposamenak.

4. Eskariak eta galderak.

– Kontseiluaren egungo osaera.

Presidentea: Iñigo Alli Martínez jauna. Gizarte Politiketako kontseilaria.

Administrazioaren ordezkariak:

Mariano Oto Vinues jauna. Gizarte Politikako eta Kontsumoko zuzendari nagusia.

César López Dios jauna. Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuko zuzendaria.

Cristina Sota Pernaut andrea. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

Arbitraje Batzordea:

Teresa Hualde Manso andrea. Nafarroako Kontsumoko Arbitraje Batzordeko burua.

Kontsumitzaileen elkarteak:

Manuel Arizcun Biurrun jauna. "Irahe" Nafarroako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartea.

Susana Arizcun Biurrun andrea. "Irahe" Nafarroako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartea.

Marisa Larramendi Mugueta andrea. "Santa María la Real" Nafarroako Etxeko Andreen, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartea.

Margarita Andrés Fernández andrea. Fiteroko Kontsumoko Kooperatiba Elkartea.

Enpresarien elkarteak:

Javier Taberna Jimenez jauna eta Amaya Erro Garcés andrea. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera.

José Antonio Sarría Terrón jauna eta José Manuel Olivar de Julián jauna. CEN.

Kontseiluko idazkaria:

María José Ezkurra Legazkue andrea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko ekainaren 26an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Iñigo Alli Martínez